

HATZEN DANTZA

Imanol Arregi 'Iturbide'
pandero-jotzaileak hitz
batek bestea ekarriz
jardun du solasean 20



INNOVA

AZPEITIA

HORTZ KLINIKA

Zurekin batera hazten

Jose Artetxe 5
943-02 59 55

URTEURREna

**MILAR
LARRAMENDI**

Ebxtresna elektrikoak



**Cooking
& Chef**

EROSI EZAZU
MILAR LARRAMENDIN
MARTXOAN ZEHAR
ETA ZURE
EROSKETA DOAKOA
IZAN DAITEKE!

Julio Urkixo, 16 - AZKOITIA
943-85 18 97
www.milaf.eus

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · ☎ 943-85 21 10 · www.biyona.net

uztarria

Argitaratzailea. Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Egoitza. Soreasuko sormen gunea, 1 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. ISSN 1576-7337
Zenbakia. 225.a (2020ko martxoa)
Urtea. XXI.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 78 04 12 / uztarria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iñaki Martinez
Webgunea. www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

||| 2020KO MARTXOKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



iritzia

Inkesta. Zerbaitek eragiten al dizu alergia? **13**

mamia

Elkarrizketa. Ione de la Cruz Azpeitiko Emakumeen Txokoko dinamizatzailearekin hizketan **04**

Klik. Ekain Iburgurenekin, emanaldi aurreko eta ondorengo orduetan **16**
Erreportajea. Uemaren udalekuetako izen-ematea, irekita **24**

jakiteko

Bestaldetik. Erretiroa hartuta den Maria Jesus Bernaras medikuak badu beste alderik **34**



Ba al dakizu uztarriaren Egunean behineko taldeak 900 Laguneko Lanqa pasatu duela dagoeneko? Uztarria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei. **dira urtean.**



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

IONE DE LA CRUZ

Emakumeen Txokoko dinamizatzailea

“Asko ikasten da beste emakumeengandik”

Martxoaren 8aren atarian, parekidetasuna, Azpeitiko errealitatea, indarkeria eta beste hainbat kontu izan du hizpide Ione de la Cruzek. 📝📍 Ihintza Elustondo

Urtebete pasatxo darama Ione de la Cruzek Emakumeen Txokoa dinamizatzen. Aurrez, ordezkapenak eta praktikak ere gune horretan egin zituen. Gizarte Hezkuntzako gradua eta Berdintasuneko eta Sexologiako master bana ditu ikasiak. “Interesatzen zait zer den emakume izatea, zer ez, eta horrek barnebiltzen duen dena. Hori lantzeko toki egokia da hau”, dio egunero lanean aritzen den Emakumeen Txokoko mahaian eserita.

Zeintzuk dira zure eginkizunak?

Emakumeen Txokoa zerbitzu bat dela uste du jendeak, baina berez udalaren espazio bat da. Parekidetasun arloa kudeatzen duen

gune bat da, berdintasunarekin eta ikuspegi feministarekin zerikusia duten edozein gauza landu ahal izateko lekua. Eta nire lana da espazioa kudeatzea. Horrez gain, Emakumeen Mahaia dago, parekidetasun arloko zerbitzuen nahiz egitasmoen inguruan erabakiak hartzen dituena. Nik egiten dudana da han erabakitzen dena martxan jarri, egutegia kudeatu... Gainera, eragileekin harremanak izatea eta harrerako zerbitzua ere nire ardura dira, baita Emakumeen Txokoak antolatzen dituen zerbitzuak kudeatzea ere. Indarkeriarekin zerikusia izan dezakeen kasuren baten berri izaten badugu ere, hemen-dik egiten dugu bideraketa lana. Horrez gain, emakumeen arteko

|||DATUAK|||||

|||Jaio. 1993ko ekainaren 24an.

|||Herria. Azkoitia. |||Bizitokia. Azpeitia. |||Lanbidea.

Emakumeen Txokoko dinamizatzailea.

saretzeak sustatzen saiatzen gara.

Jende askok pentsa dezake Emakumeen Txokoa emakumeentzako gunea dela, baina behin baino gehiagotan esan izan duzue hori ez dela horrela.

Emakumeen Txokoan badago arlo bat emakumeei bakarrik zuzendutakoa dena: Jabetze Eskolena. Baina gainontzeko gauzak edonorentzako dira. Parekidetasunari eta feminismoari lotutako aholkularitza ematea ere bada nire lana; beraz, edonor etor dai-

teke hona zalantzaren bat baldin badu edo zerbait galdetzea nahi badu. Herritar ororentzako eta gaian interesa duen edonorentzako gunea da Emakumeen Txokoa.

Azpeitiko emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna sustatzeko tresna bat da Emakumeen Txokoa. Zer beharri erantzuten dio egun tresna horrek?

Garrantzitsuena sentsibilizazioa da. Herrira begirako sentsibilizazioa lortu nahi dugu, gai ezberdinak ekarrita eta horien inguruko ikuspegi eta kritika feministak sortuta. Horrez gain, gizartearen arlo denetan gizonak izan dute lehentasuna, eta emakumeek arlo horiek lasai landu ahal izateko,



haiantzako gune bat izatea ere beharrezkoa da. Adibidez, oso esanguratsua da aurten antolatutako dugun boxeo ikastaroan bi talde sortu direla. Kontua ez da inguruotako boxeo praktikatzeko aukerarik ez dagoela; oso eremu maskulinizatua da hori, eta emakumeei zaila egiten zaie halakoetan sartzea, nahiz eta badirudien egun edozein tokitara joan daitezkeela. Identitatea txikitatik sortzen da, eta oraindik gehiago

kostatzen zaigu emakumeoi espazio mistoetan sartzea. Eta emakumeentzat boxeo ikastaroa antolatuta, lortu dugu ahalduz eta sentsibilizatzea.

Emakumeen ahalduz zeari eta autonomiari indarra emateko, zer nolako egitasmoak sustatzen dituzue?

Feminismoaren helburu nagusia da kolektibotasuna eta ahizpatasuna sustatzea. Emakume bakoitzak ez du bere ongizatearekin

bakarrik kezkatu behar, emakumeok badugu problematika kolektibo bat. Nork bere burua ahalduz, norbere egunerokotasuneko hainbat konturi aurre egingo dio, baina honi guztiari kolektibokan eragin behar diogu. Hori landuko duen gune bat ere bada Emakumeen Txokoa. Denok batera gure burua landuko dugu, baina kolektiboki ere bai.

2011ko irailaren 17an zabaldu zuten Emakumeen Txokoa. Zer ibilbide izan du orduetik gaur arte?

Lehen, adibidez, egun erdiz lan egiten zuen dinamizatzaileak, arratsaldeetan bakarrik zabalzen zuten Emakumeen Txokoa, astelehenetan itxita egoten zen... Hasiera izan zen hura, baina proiektuak sortzen joan ziren heinean, ikusi zen beharrak handitzen ari zirela eta ordutegia zabaldu beharra zegoela. Orain, goizez eta arratsalde zabalzen dugu gunea, eta %75eko lanaldia dut nik. Pixkanaka indarra hartzen joan den proiektu bat da: autoantolatuta taldeak hona etortzen dira, baita Basanderiek talde feministako kideak ere... Guneak zentralitatea hartu du parekidetasunarekin lotutako gaiei dagokienez; oso leku aktiboa bilakatu da. Era askotako emakumeak igarotzen dira hemendik, eta askotariko ekintzak egiten ditugu.

Zeintzuk dira Emakumeen Txokoaren egungo erronka nagusiak?

Alde batetik, garbi dago pareta moduko bat dagoela herritarren eta Emakumeen Txokoaren artean; jendeari oraindik errespetua ematen dio hona etortzeak, jendeak ez daki zehazki zer egiten dugun hemen. Eta jendeak galdetzen dio bere buruari: "Emakumeentzat bakarrik al da?". Bederatzirte daramatza gune honek irekita, eta oraindik ez dakigu nor etor daitekeen. Hesi hori apurtzea erronka handia da. Eta bestetik, indarkeriaren inguruan lanaketa espezifikoa egitea dugu erronka. Egia da guk berez ez

“pareta bat dago herritarren eta emakumeen txokoaren artean”

“iaz, zortzi indarkeria kasu identifikatu genituen”

daukagula ahalmenik arreta eskaintzeko, baina hau bada gune bat jendeak indarkeriari begira erreferentziatzeko duena. Ez da parekidetasun arloaren eskumena arreta zuzena eskaintzea; horregatik, guk beste gune batzuetara bideratzen ditugu indarkeria kasuak: gizarte zerbitzuetara edo beste elkarte batzuetara. Aholkularitza eta informazioa ematen dugu guk, eta ahal denean, jarraipena ere egiten dugu.

Agerikoa da gaur egun oraindik gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko asko dagoela egiteko: soldata arrakala, indarkeria... Zein da Azpeitiko emakumeen errealitatea?

Beste denen bera; Azpeitia ez da salbuespena. Zaintza lanetan ari direnak emakumeak dira herrian, eta ikusi besterik ez dago zer egoeratan dauden eta nola ari diren borrokan. Gainera, gurasoen artean eszedentzia hartzen duena emakumea izaten da normalean, baita Azpeitian ere. Edozein lekutan gertatzen direnak hemen ere gertatzen dira.

Indarkeria kasuen inguruko daturik ba al duzue esku artean?

Gugana iristen diren indarkeria kasuak identifikatzen ditugu. Askotan emakumeak beraiek ez dira etortzen, baina agian, lagun bat etortzen da bestearen egoera azaltzera. Hemen identifikatzen ditugu indarkeriarekin edo harreman toxikoekin zerikusia duten kasuak; iaz halako zortzi kasu

identifikatu genituen. Udaleko Gizarte Zerbitzuetara iristen diren kasuak aparte egongo lirateke.

Halakoetan, nola jokatzeko duzue?

Informazioa ematen diegu, eta informazioa erreminta inportantea da. Ez ditugu zuzenean ertzainengana bideratzen; esaten diegu hara joateak zer eragin dezakeen, batzuetan salaketa bat jartzearriskutsua izan daitekeela... Prozedurak azaltzen dizkiegu. Arreta zuzena ezin dugu eman, baina oinarria aldatzeko egiten dugu lan, eta hori ezinbestekoa da azalean dagoen edo ikusgarria den hori aldatzeko. Noski indarkeriaren kontrako lana egiten dugula, baina ez zuzenean, ez arreta espezifikoa.

Lehen aipatu duzu hesi bat dagoela herritarren eta Emakumeen Txokoaren artean. Gune horretara joateko pausoa ematera ausartzeko ez den jendeari zer esango zenioke?

Etortzeko eta ikusteko; probatzea bezalakorik ez dago. Gizon askok zera galdetzen dute: "Gu ere joan al gaitzke?". Hitzaldi-tara etor daitezke, baina asko jota, bat edo bi etorzen dira. Berdintasunaren gaia erdi modan dago, baina mundu horretan sartzea kosta egiten da; izan ere, egunerokoan gauza asko alda-

tzea eskatzen du horrek. Gure egunerokoan eragiten dute hemen lantzen diren gaiak eta gauza asko aldatzea eskatzen dute; eta, agian, ez dugu nahi. Ez dut uste interes falta dagoenik, interesa badago, baina ez dakit zenbaterainokoa den interes hori: ez dakit prest gauden interpela gaitzaketan gauzak entzun eta gero horrekin etxera joateko. Batzuetan gauza batzuek deseroso sentiarazten gaituzte. Gizona baldin bazara, askoz gehiago eragingo dizu hemen entzundakoak eta okerrago sentituko zara. Etorkinen inguruko lanketaren bat egiten dugunean ere antzekoa gertatzen da: agian, birpentsatu egin behar dugu bertan jaio garelako etorkinekiko pribilegio batzuk dauzkagula. Beharbada, konfort egoeratik ateratzea eskatzen du.

Zer ikasi duzu dinamizatzaile lanean daramazun denbora honetan?

Beste emakumeengandik asko ikasten dela. Bakoitza bere etxean burbuila batean egoten da, eta beste batzuekin elkartzeko garenan, errealitate ezberdinak ezaugarritzen ditugu. Emakume etorkinekin edo gazteekin egonda, zure munduan sartzen ez diren gauza asko ikasten dituzu; asko irekitzen zaizu mundua. Bakoitza bere ideiekin eta bere egiarekin bizi gara, baina gero ikusten duzu



zenbat egia dauden. Interesgarria da hori.


Gomendiorik ba al duzu herriko emakumeentzat?

Emakumeak asko bultzatzen gaituzte kulpa sentitzera, eta kulparik gabe bizitzen saiatzeko, norbere burua zaintzeko eta inguru ondo tratatzeko esango nieke.

Martxoaren 8a da hil honetan, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Zertan laguntzen du borroka egun hori ospatzeko?

Errealitatea ikusarazten lagun-

tzen du. Baina zalantza bat ere sortzen da egun horren inguruan; izan ere, zera gerta daiteke: gaur irteten gara kalera, eta bihurturik aurrera, dena ahazten dugu. Dena den, azken bi urteotako grebei esker aldea nabaritu da emakumeen ikusgarritasunean. Uste dut oso indartsua dela bi urtez herriko plazan kolore guztietako emakumeak elkarrekin ikustea. Gero, urtean zehar, bakoitzak ahal duen lekutik eta ahal duena egingo du, baina borroka honetan, denak elkarrekin gaude.*



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arragueta 27
20600
Eibar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es

Loretan

Joan dira inauteriak. Bijiliari, neurritasunari utzi diote gehiegikeriek lekua; bukatu da zalaparta, kaosa. Neguaren arrastorik ez aurtengoan. Loretan daude zuhaitzak. Hilabete morea edo kolore anitzekoa martxoa, ikuspegiaren, janzten diren betaurrekoen araberakoa.

Portrait de la jeune fille en feu (Garretan dagoen emakume baten erretratua) filma ikusi berri, Matadeixe Zinetogramen eskutik. Frantzia, XVIII. mendea; emakumezko margolari bat ezkontzera behartutako emazte bati erretratua margotzeko kontratatzen dute; emazteak ezkontzerik nahi ez duenez, ez du bere senargaiarentzat izango den erretratua bukatzen uzten, uko egiten dio posatzeari. Margolariak bera jabetu gabe margotu beharko du erretratua.

Celine Sciamma da zuzendaria, frantziarra, garai berriei artea egiteko modu berri batekin erantzun nahi diena. Iraganeko irudiak falta direnean, memoria pixka bat lantzeko, irudiak, erreferentziak sortu egin behar direla dio. Sortu. Sortzearen ideiak ez du orain arte ikasitakoarekin bat egiten, baina ezin uka interesgarria badenik.

Bidean ahaztu dira

Nahiz eta iraganean ekarpen interesgarriak egin dituzten hainbat emakume egon, bidean ahaztu dira, ez zaizkigu gure iruditegira iritsi, eta horrek guztiak eragina dauka egun nagusi den gizarte eremuan. Ama zintzoak eta emazte pasiboak izan gaitezen hezi, bezatu gaituzte. Gogorra egiten da oraindik ere horri guztiari aurre egin beharra. Zenbaiten begietan halakoak esaten arituko naiz ez naizelako ez ama eta ez inoren emazte. Eta munduak biraka darrai.

Gauzak aldatzen ari dira, baina oraindik pertsonen arteko harreman parekideak sortzea kostatu egiten zaigu. Inork ez dugu bestearen gainetik egon nahi, baina ez da hain erraza, erreferenteak falta zaizkigu. Sortu



olatz aranguren

||| Baina ez dezagun pentsatu mundua zapaldu dutenen artean onenak garenik. Badugu zer ikasia guk ere



egin beharko ditugu. Iruditzen zaigu giza eboluzioaren garairik gorena bizi dugula egun, urteak aurrera joan ahala guztian hobetzen joan garela, baina ez da horrela. Internetarekin, sare sozialekin, telefonoarekin... gure aurrekoek sekula pentsatu gabeko zereginak egitera iritsi gara.

Aurrerapen teknologiko ikaragarria bizi dugu eta biziko dugu. Baina zer gertatzen da eraikitzen ditugun harremanekin? Sortzen, gorpuzten ari garen jendartearekin? Hain aurreratua ote? Gai al gara esateko duenari entzuteko, azpian dagoenari eskua luzatzeko, behar duenaren ondoan egoteko? Gai elkarri goxotasuna, patxada, maitetasuna aurrez aurre eskaintzeko? Iragana ere ez zen perfektua izango. Aldi bakoitzak izaten ditu bere ifrentzua eta aurkia. Baina ez dezagun pentsa mundua zapaldu dutenen artean onenak garenik. Badugu zer ikasia guk ere.

Martxoak kolore morea edo anitza izan dezake, janzten ditugun betaurrekoen arabera. Newroz, eguzki berria sortzeaz da ekialdetik, gure udaberriarekin batera. Emankotasunari gorazarre, zapalduko beste jendarte bat. Argiak iluntasunari nola irabazten dion irudikatzen du, neguari udaberriak tokia hartzen dioneko. Bizi-eremuak garbitu eta eskaintzak egiten dira argi berriaren zipriztinak birsortzen, aukera berri bat izaten lagunduko duelakoan. Urteak daramatzate gerran, oinazeen, ezinean. Baina, hala ere, emakumez nahiz gizonez, aniztasunez osatutako sistema parekide bat irudikatu dute, gauzatu dute. Iraultza abian jartzeko adorea izan dute, auzoan kontuz ibili beharreko zakur amorratuak izanda ere. Bidea ez da erraza izan haientzat ere.

Newroz, eguzki berria, iluntasunetik sortutako argia. Badugu guk ere urte luzeetako iluntasuna alde batera utzi eta parekidetasunez biziko garen jendartearen beharra. Zipriztindu gaitzala gu ere eguzki berriak. Lortu gaitezen.*

Helmuga eta helbidea

U

rtarrilean askatu zuten Ekaitz Samaniego preso politiko gasteiztarra. Memoria kolektiboa lohitu ez dagigun, kale istiluak eragitea eta Segi gazte antolakundeko kidea izatea egotzita zortzi urte jan behar izan ditu Ekaitzek espetxe zuloan –22 urte zeuzkan gatibatu zutenean–. Askatu berrikan, Hala Bedi irratian elkarrizketatu zuten, eta, une batean, elkarbizitzaren gaiaz galde-tuta, *bake* hitzari eman izan zaion trataera murriztailea problematizatzen du, nire ustez, behintzat, erabateko zuhurtziaz: “Bakea, existitzekotan, helmuga utopiko baten moduan ulertu dezaket bakarrik. Hitz egin dezagun sistemaren egiturazko zapalketa guztiez, bestela, arazo asko ariko gara bazterrean uzten eta normalizatzen”. Bakea, justizia bezala, zorientasuna bezala, balio absolututzat ulertzeko dabilen joerari zaplastekoa da gasteiztarraren adierazpena. Noren bakea? Nolako justizia? Zein zorientasun? galdetuz, maximok lurtartu nahiko balitu bezala; lorgarritasuna ukatzeko, baina hitzen izaera politikoa nabarmenduz. Halere, gaur ez nator, zehazki, horretaz hitz egitera. Ekaitzen hitzek, helmugari eta helbideari, gailurrari eta bideari, helburuei eta bitartekoei gogarte bat eskaintzeko gonbita luzatu didatela sentitu dut.

Andoni Egaña, *Berriako* bere zutabeetako batean, zorientasunaren inguruko pasarte bat ekarri zuen, gogoan iltzatu zitzaidana. Nola pertsona bat zorionaren kontsultara joan, itxarongelan txanda noiz iritsiko zain egon eta bere txanda ailegatzean zorionaren gela hutsik bilatzen duen. Orduan ohartzen da zoriona zorionaren itxarongelan egoten dela beti. Bere gremioko beste eminentzia batek, Amets Arzallus hendaiarrak, 2013ko final handiaren karietara, horrela bezatzen zuen txapelaren balizko itzala: “Gailurrak ez du bidea eder egiten, bideak gailurra baizik”. Xaloa da Ametsen asmoa, eta bizitzari heltzeko modu bat adierazten du, eraikitzaileena zein interesgarriena nire iritziko; eguneroko



|||||||Jon gurrutxaga|||

|||Gaur ahalik eta A-ena izango naiz, eta bihar ere bai, etzi B izatera heltzen jarraitzeko



lan etengabeari balioa ematearen eta norber burua Olinpoaren fokupetik apartatzearen aldekoa.

Gaurdanik hasi

Gaur eta bihar A izango naiz, etzi B izateko ezinbestekoa zaidalako. Itxura batean jarrera pragmatikoa dirudienak A-ren betiketzea du bokazio, izaeraren eraldaketa gerokotan uzten duelako. Defendatzera natorrena zera da: gaur ahalik eta A-ena izango naiz, eta bihar ere bai, etzi B izatera heltzen jarraitzeko. Etzi gizarte berri bat nahiko banu, gizarte berri horretarako pertsonak hezteko baliabideak jarri beharko nituzke gaurtik hasita, gaurko pertsonekin irudikaezina litzatekeelako etzirako nahiko nukeen gizartea. Bien arteko aldea nabarmena da: jokoan dauden piezak ahal bezala mugitzea, balizko garaipenaren fantasian, edo dauden piezak helburuaren arabera moldatzen saiatzea, hasierahasieratik. Aipua argigarri gerta daitekeelakoan, Joxe Azurmendi pentsalariaren bat: “Helburua eta bitartekoa kontzeptu erlatiboa dira. Praktikan, bitartekoa, egintza planifikatzerakoan, helburu bat da bera; gaurko helburua, urrats bat gehiago, eta hurrengo helburuaren bitarteko bilakatu da”.

Azken gako hori, edozein mugimendu politiko, norbanako zein artistaren muin-muineko auzia dela pentsatzen dut –estrategikoa–. Planteamendu gauzagarriak mahaigaineratzekotan, asmatu beharko genuke helburuak bitartekoetan barnebiltzen, edo, bestela esanda, jakin beharko genuke gaurdanik eratzen gutaz hemendik X urtetarako daukagun proiektzioa.✘

MARTXOAREN 12RA ARTE

NAFAR HEGOALDEKO UZTA
ESKUTIK ESKURA

GURE HAUTUEZ HARRO

ESKATU NAFARROA HEGOALDEKO OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA —5 LITROKO BIDOIETAN— ETA ARROZA, PASTA ETA KONTSERBAK —12 ONTZIKO SORTETAN— EUSKARAZ ETIKETATUTA ETA EKOIZLEAREN JATORRIZKO PREZIOAN

WWW.ERRIGORA.EUS

BANAKETA GUNEA:

Baigera
Elikagunea
Ikasberri Ikastola
Orkatx Kultur Elkarte
Soreasuko Elkar-gunea

ERRIGORA

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Euskaraldirako prestatzen

‘Ahobizi’-ek eta ‘belarriprest’-ek orain bi urteko rol bera izango dute II. Euskaraldian. Entitateek ere hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera izango dute horretarako sortuko diren ariguneetan.  Julene Frantzesena

Datorren udazkenean, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 5era, egingo da II. Euskaraldia, euskaraz "gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" egiteko helburuarekin. 2018ko lehen Euskaraldiak 11 egun iraun bazituen, bigarren edizioa luzexegoa izango da, hamabost egunekoa, berriro ere euskaldunen hizkuntza ohituretan eragitera datorren ekimena.

Iraupena ez da izango, ordea, aurreko edizioarekiko berrikuntza bakarra. Lehen edizioan norbanakoak izan ziren protagonista, hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin *ahobizi* eta *belarriprest* moduan ariketan parte hartu zutenak. II. Euskaraldian mantendu egingo dira norbanakoen rol horiek, baina horrekin batera taldeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera izango dute era guztietako erakundeetako kideek, horretarako sortuko dituzten ariguneetan.

Azpeitian hasi dira dagoeneko II. Euskaraldiak nahi bezalako emaitzak izan ditzan beharrezkoa den aurreko lanketa egiten. Hain zuzen ere, otsailaren 5ean egin zuten Euskaraldia antolatzeko herri batzordea osatzeko lehen bilkura. 2018an batzorde berean parte hartu zuten hainbat eragiletako kidek eta norbanakok parte hartu zuten bilera hartan, baina batzordearen ateak irekita daude bertan parte hartu nahi duen edonorentzat. Izan ere, aurrerago beste hainbat bilera egingo dituzte Azpeitian egingo den Euskaraldiaren bigarren edizioa prestatzeko.

Udalak Imanol Amiano izendatu du Azpeitian Euskaraldiarekin lotutako egitasmoak koordinatzeko arduradun. Hark azaldu duenez, herritarrek batzarrean parte hartzea behar dute, ariguneetan ariko diren entitateekin-eta harremanak egiteko.★



II. Euskaraldia prestatzeko egindako lehen batzarreko irudia.  Azpeitiko Udala



Eider Garate.

 **ESANA DAGO** 

“Koronabirusaren bueltan sortu den larritasun egoera behar baino handiagoa da, eta horretan eragin handia dute hedabideek”

“Turinen gaudenontzat bizi dugun egoera baino gogorragoa da gure familiek duten kezka”

EIDER GARATE
Italian dagoen ikaslea

“Desberdina da oso bertso bati edo abesti bati hitza jartzea”

IGOR ELORZA
bertsolaria eta Hitza-
ren Eskolako irakaslea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO
MARGOAK

Salba Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **Aiortza**
Autoak

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK



Independentziatik esklabotzara



txetxu urbieta

Zein da munduko ofiziorik eskasena? Erantzun zaila. Asko eta sakon pentsatu ondoren, erantzuna badut. XXI. mendean aita izatea da mundu honetan dagoen ofiziorik eskasena. Osalan ere izan bedi jakitun, alegia, Urbietaren burutapenarena. Etxe bakoitza mundu bat izango da, bakoitzak izango du bere ukitua eta bere ñabardura, baina uniformizazioaren aroan, ardizte –denok artalde bereko ardi egiteari deitzen zaiona– garaian, aita denok antzeko arazoak eta komeriak ditugu.

Jaio berritan kuarentenako zaindari gara. Dena da beldurra, dena da kezka. Hain dira

ahul eta hauskorrak! Ondoren haien bizkar-tzain bihurtzen gara, umeak nora gu hara, motxila, jostailu eta tramankulu guztiak hartuta. Haurren artaldea aurretik, Seguritaseko aitak atzetik. Jakin nahiko nuke asteburuetan gure oinordekoen atzetik batetik bestera alferrikako zenbat *zeobi* isurtzen dugun. Eta gero nerabezarora dator. Psikologo edo psikiatra bihurtzeko unea. Dena da zalantza, dena da kezka, baina erabakirik ez. *Kottaue gure txikiye*, zuk hartu erabakia. Eta hamarretik bederatzitan *kottauek* nahi zuen erabakia hartu ez duzunez, egurra zuretzat. Berea eta hurbileko guztiena.

Erauntsia! Eta aterperik ez! Jarraian gaztaroa etorriko da. Mundu berri bat deskubritzeko garaia. Etorkizuna jokoan. Daukagun dena emateko garaia. Eta gero lanean hasiko dira, baina dituzten lan baldintza mixerableekin, ba bada-kizu, etxetik ezin alde, etxetik ezin bota. Eta ospa egiten dutenean, hor datoz biloba karrotxoan dutela, eta aitona jubilatu berriak berriro parkera joan behar. Ez aseguru eta ez lan kontratu. Etengabeko 155ean bizi behar. Independentzia oihuak entzun eta esklabotzatik ezin atera. Baina zein ederra den bizitza. Are gehiago Realak irabazten duenean.✘

IKUSTEKOA!



▲ MARGOKETA LANAK, ZINTZILIKATURIK.

Arnesa jantzi, sokak finkatu eta gora igo. Eskalatzaile batek egin ditzakeen prestaketa lanak dirudite, baina badira tankerako prozedura lanerako erabiltzen dutenak ere. Kasu honetan, pintoreak dira, altueretatik zintzilik etxaurreak margotzeko ardura duten eskalatzaileak. Enparan kalean ari ziren lanean Uztarriak irudi hau atera zuenean. 🛠️ Uztarria✘

OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Itxura txukuna

HIRIGINTZA. Ikaragarria da azken boladan herriak hartu duen itxura txukuna eta eraberritua. Herriko zenbait kalek eta txokok orain beste itxura bat dute, egin dituzten muralei edo lorategiei esker. Batez ere, Julian Elortza etorbidekoa aipatuko nuke; izan ere, trenbideko errai bat jarri dute bertan, horrek ematen dion originaltasunarekin. Ea herriko txoko gehiago ere apaintzen dituzten horrelako elementuekin.



Ieltxu Caballero



Gidatzen den moduan...

GIZARTEA. Herritar ugari gidatzen duten moduan gidatuta ere, ez dugu ia ezbeharririk izaten. Jose Antonio Agirre plazaren ondoko errepidean, esaterako, norbait aurretik eramateko moduan ibiltzen dira gidari asko. Eta bizikletaz edo patinete elektriko ibiltzen diren gazte batzuek egiten dituztenak... Horiek beste baterako utziko ditut.



Zer esan ia dena esanda dagoenean?

INGURUMENA. Zer esan ia guztia esanda dagoenean? Gezur tontorra zabortegi horretan dagoen zabor tontorra baino handiagoa dela? Batzuen diru goseak beste bi langileren biziak eraman dituela? Jendearen osasuna ez zaiela batere axola? Minbiziaren edo gaitotasun

ugariren tasak gora egiteak garrantzirik ez duela batzuentzat? Zaldibar eta Zubieta artean dago Azpeitia, erdi-erdian. Lerro zuzenean hogeiki lometrok soilik banatzen gaituzte. Mundua zaborrez beteriko hilobi kutxa handi batean bihurtzen ari gara.*

INKESTA

zerbaitek
eragiten al dizu
alergia?

I. Elustondo/N. Uranga

IRATI ETXEBERRIA

27 urte



**"Bai, akaroei diet
alergia. Urte osoa
katarroarekin
pasatzen dut,**

**klinexak poltsikoan hartuta
ibiltzen naiz. Dena den, ez dut
inolako tratamendurik egiten.
Aurten, oraindik ez dut askorik
nabaritu alergiaren eragina".**

ARITZ ORBEGOZO

44 urte



**"Gramineoei diet
alergia, eta
udaberrian ederki
nabaritzen dut**

**eragina. Hala eta guztiz,
antihistaminikoak hartzen ditut,
eta hobeto sentitzen naiz
horrela. Egia esan, gogaikarri
samarra da allergia izatearen
kontua.**

NAROA URIA

23 urte



**"Gramineoei eta
temperatura
aldaketei diet
alergia. Nahikoa**

**bolada txarra pasatu nuen
abenduan. Dena den, orain
dezente ondo nabil.
Antihistaminikoak hartzen ditut
alergiarentzako, baina alergiak
eragiten didanean muki ugari
izaten dut; deserosoa da hori.**

AITZOL IPARRAGIRRE

44 urte



**"Ez dut alergiarik.
Sekula ez dut ezer
nabaritu; mutil
sanoa naiz".***

Vox populi

Konplizitate tonua eta keinuak erabilia, gertuko batek azaldu didanez, gazte-txartela denei iristen omen zaie... Eta nik begiak pixka bat kizkurtu, eta baietz, 14 eta 30 urte bitartekoei, uste nuela. Eta hark ezetz, ez nuela harrapatu, "denei" esan zuenean *denei* esan nahi zuela. "Eta mobilidadie?", hark, temati, bekainak igotzen zituen bitartean. "Ein?", nik, benetan ez bainuen ezer ulertzen. Beno, ez da guztiz egia, hasierako "denei" hark susmoak piztu zizkidan eta. Garraioetako deskontuen onurak jasotzeari buruzko kezka zen "mobilidadie". Zehatzago, *denei* jasotzen zituztela. Hau da, *moroei, beltzek eta pantxitoek* ere bai, azkenean argitu zidanez. Zeinek erabiltzen ditu ba, garraio publikoak? Guk, gutxi, etxean bina kotxe izaten ditugu eta. Nola joan behar dute ba, bestela, ondoko herrira gure ama zaintzera, gure aitari ipurdia garbitzera? Harantzagoko jatetxera, sukaldeko harrikoa egitera? Garaardoak eta kafeak ateratzera? Arrantzan egitera?



Imanol Amiano

Edo, urrutiegi joan gabe, zabortegi-zuloan amianto-zakuak botatzera?

Vox populi dira mantra horiek, baina –espero– ez herriaren ahotsa. Hala ere, beldur naiz ez ote dagoen, beharbada beraiek konturatu gabe, gero eta –barkatu sigla-joko txatxua– *VOX populus* gehiago gure artean.

Burua ezker-eskuin astinduko nuke topikook piperpotearen gainesposizioa egiten duten Ebrotik beherako fatxa horiek esango balituzte, baina Urola ertzetako *voxxendeak* egindakoak dira: fatxa *roji-gualdaz*, bai, baina joan liteke *soineko xuriz jantzia* ere, *buruan orlegi, bihotzean sua*.

Izan ere, arnasa hartzea gero eta gehiago kostatzen zait, *Bizkaia maite* horretako zabor-mendian banengo bezala, txuriz jantzita, zaldien ibarreko berdetasun idilikoaren erdian kontrolik gabe pilatutako zaborraren bihotzean piztu eta dena kakazten duen sua itzali ezinik.*

**gaLdetzen hasita, noiz inauguratuko
dute azpeitia eta urrestilla arteko
bidegorriaren zatia? Uztarria**

Immatrikulazioak

Diruak ez du eragin onik Jainkoari buruzkoetan, idatzi zuen Tertuliano, III. mendeko Eliz irakasleak, kristautasuna erromatar inperioko erlijio ofizial izatera iritsi gabe zela eta kristau izatea zigortua zenean. Zer esango ote luke gaur, nagusitasunaren ondasunei eta pribilegioei kosta ahala kosta eutsi nahi dien Elizaz?

Gatozen hainbat hizpide ematen ari diren immatrikulazioetara. Jakina denez, Franco diktadoreak 1946an ezarritako legeak aukera eman zien gotzainei –odolkiak ordainetan– kudeatzen zituzten lur-sail, etxebizitza, abade-etxe nahiz garajeak –eta frontoiak ere...– beren izenean erregistratzeko, "immatrikulatzeko". Edozer, kultu-lekuak salbu. Baina salbuespena ez zen arazoa: aski zuen gotzainak eraikia zegoen lurzorua erregistratzea, eliza edo ermita bera ere bereganatzeko. Aznarrek, gotzainekin zordun, Francoren legeari zuzenketa egin zion 1998an, gotzainek kultu-lekuak ere immatrikulatu ahal zituzten. Ez zioten Aznarren opariari muzin egin: laster jarri zituzten beren izenean



Joxe Arregi

Kordobako meskita, Sevillako Giralda, Zaragozako Seoia, Donostiako Artzain Onaren katedrala... Milatik gora jabetza Nafarroan, 400 inguru Gipuzkoan. Espektakulu tristea: gotzainak harrapazka.

Ez dakit legez norenak ziren eta diren, eta ez dit axola. Historiaz, gizatasunez, Ebanjelioz, herriarenak ziren eta dira. Asko eta asko, erregeek eta handikiek eman zizkieten Elizari, eurenak balira bezala. Baina herriak eraiki zituen, herriak konpondu ditu. Herri-diruz beti. Jakina, orduan ia herri osoa zen Eliza. Elizak gizar-tea ordezkatzeko zuten. Gaur inondik ere ez, eta horrek dena aldatzen du. Zer egia?

Hona nire proposamena: meza eta antzekoetarako erabiltzen ditugun bitartean, jarrai dezagula kristauok elizak erabiltzen, baina baita gainerako herritarrek ere, nahi badute, erritu zibiletarako nahiz kultur ekitaldiatarako. Eta jabetza guztiak itzul daitezela lehenbailehen herriaren eskuetara. Diru-goseak eragiten dion Elizak ez du zerikusirik Jesusen Ebanjelioarekin.*

HAU HOLAXEENK



1 53 51 52

38 37 36

2 50

39 35

3 49

40 34

4



33

5

32

6

31

7

30

8

29

9

28

10

27

11

26

12

25

13

24

14

23



15

16

17

18

19

20

21

22



Pentsamenduen informatika

2020. egutegian ikusteak zirrara sortu zidan. Aurreko mendekook futurista jartzen ginenean ager zitekeen 2020a, auto hegalaria eta guzti. Eta danba! Oraina da. Ez gara ilargian bizi eta ez gaitu robot armada batek bahitu, baina asko aurreratu dugu teknologian. Nago aurrea hartu ere egin ote digun zenbaitetan. 2.0 modernitatearen sinbolotzat saldu zigutenetik auskalo zein X.0-n gauden jada. Eta gauzak asko aldatu dira.

Kuriosoa da, ordea, aldaketa informatikoak nola garatzen diren. "Ordenagailuan duzun sistema eragilearentzat ez dago jada eguneratze-

rik", esan zidan teknikoak. Ez nion ulertu baina sistema guztia aldatu zidan, modernitatearen izenean. Niri Windows hura gustatzen zitzaidan, ohituta nengoen, banekien non zegoen programa bakoitza, baina... dena hankaz gora jarri didate eta orain berrira moldatu behar.

Kognitibismoa izeneko korrante psikologikoak sortu zuen "ordenagailuaren metafora", informazioaren prozesamenduan giza garunaren eta ordenagailu baten arteko paralelismoa erakiz. Eta ameskerietan, zenbait pentsamendu sistema zaharkituen ordezkatzekak imajinatzen ditut. Gizartea aurrera doan heinean ideia za-

harkituekin zabiltzala? Sistema operatiboa aldatu behar duzu, zure ideien eguneratzerik ez dago bazterretan. Ideia homofoboak dituzula? Arrazismoaren aldeko diskurtsoa erakitzen dutela zure pentsamenduek? Ez dituzula ideiak feminismotik erakitzen? Sistema berrizera.

Nazkatu naiz adierazpen askatasunaren benderapean sustatzen duten pentsamendu askatasunaz, edozein ideia zaharkituri lekua egin behar bagenio bezala. Ez, maiteok: pentsatu aurretik entzun, ikusi, irakurri, sentitu, bestearen lekuan jarri... zeuon sistema eragileak berritu eta gero, geroak. Noizko? Bi mila eta...?*



|||||felipe murillo|||

Erotikan Plax!

Kazetaria da Anartz Izagirre, eta hari egokitu zaio galderei erantzutea hil honetan.

Zer da zure lanean gehien gogozatzen zaituena?

Egiten ditudan elkarrizketen edo erreportajeen *feedback* jasotzekak.

Nolakoa behar du kazetariak jendearengana iristeko?

Zehatza eta zuzena. Sexualitate kontuetan bezala, zer lortu nahi duzun jakitea garrantzitsua da.

Sexualitateari dagokionez, zertaz informatu behar genuke jendartea?

Orokorrean, sexualitateaz arrastorik ez dugula esango nuke. Dena den, sexu bidezko gaixotasunez edo harremanetarako beharrezkoak diren balioez informatu behar genuke.

Azpeitiko ligoteo kronika titular batean?

Aspergarria: oso zuzena, aurreiritzi asko ditugu eta ez gara arriskatzeko.

Sexualitatea gaitzat duen zer albiste entzun nahi genuke?

|||ANARTZ IZAGIRRE|||

Adina. 25 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Kazetaria.



Tratu onetan eta errespetuan oinarritutako Euskal Herri bat dugula.

Kazetaritzan funtsezkoa da informazioaren kalitate ona. Zerk lagun dezake maindire arteko esperientziaren kalitatea hobetzen?

Iturria fidagarria izateak; eta zeure buruarengan konfiantza izan eta inprobisatzeak.

Zertan dira antzekoak infor-

mazioa jasotzeko eta ligatzeko modu berriak?

Aukera berriak sortu dira, baina jakin egin behar da zer-nola erabili. Erreportaje erotikoko bat, nori? Apaiz edo moja bati.

Maitasun testuak: ahoz edo idatziz?

Halako testuak diren bitartean, edozein eratar. Aurrez aurre entzuteak xarma gehiago du, halere.

Lantokiko guneen artean, bihurrikerietarako txoko bat?

Iggailua, dudarik gabe.

Komunikatzeko zailtasunak dituen lagun bati zer esango zenioke?

Inor ez dela ikasita jaiotzen eta egoera erlatibizatzen nahiz inprobisatzeko. Denok ditugu konplexuak eta beldurrak.*

|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688 89 79 20
Hitzorduak, hilabetea: hilaren 18an
(16:00-19:00) eta 7an (10:00-13:00).|||





Teloiaren atzetik...

Hainbat trikimailuz eta kolore biziz jantzita estreinatu du Ekain Ibarenek 'Alejop!' ikuskizuna. Halako lan bat taularatzeak badu atzeko lanik. 📎📷 Mireia Galarza



▲ **PRESTAKETAK.**

Emanaldiak bezain besteko seriotasunez hartzen ditu entseguak pailazo azpeitiarrak. Orduak eta orduak pasatzen ditu malabareak egiten; izan ere, beti saiatzen da teknika hobetzen. Iburgurenek dioenez, entseguetan malabareekin ondo moldatzeak ez du esan nahi, baina, emanaldian ere hala izango denik: “Urduritasunak eta halako faktoreek asko eragiten dute”.

▲ **ELEMENTUAK.**

Ikuskizunetan askotariko elementuak erabiltzen ditu Iburgurenek, emanaldiak ahalik eta osoenak izan daitezzen. Entsegu guztietan ateratzen eta gordetzen ditu gailuak, eta beharrezkoa bada, horiek puntuan jartzen ditu. Musikazalea izan da beti azpeitiarra, eta horregatik erabiltzen ditu gitarra eta klarinetea ‘Alejop’ izena duen eta orain gutxi estreinatu duen ikuskizun berrian.



◀ **TXUKUN JASO.**

Entseguak amaituta, erabilitako material guztia txukun jasotzen du azpeitiarrak. Guztia jasotzen denbora ematen duela aitortu du, baina hark dioenez, dena “ondo antolatuta” edukitzea gustatzen zaio, ezer ez galtzeko eta ikuskizunaren egunean gorabeherarik ez izateko.



◀ **MAKILLAJEA, GARRANTZITSUA.**

Emanaldien aurretik patxadaz makillatzea gustatzen zaio Iburgureni. Haren arabera, pailazo baten makillajea jantzia bezain garrantzitsua da, pertsonaia finkatzen laguntzen duelako. Dena den, makillaje sinplea erabiltzen duela aitortu du. Iburgureni kalitate oneko pinturak erostea gustatzen zaio.



◀▲ **PRESTAKETAK.**

Prestaketetako eta ikuskizuna hasi aurreko uneetako urduritasuna saihestezina dela dio Iburgurenek. Hala ere, oholtzara atera aurretik saiatzen da bere pertsonaian sartzen. Hain zuzen ere, kamerinoko ispiluan txantxak egiten dizkio bere buruari, agertokira irten aurreko une hori goxatzeko. Emanaldi aurreko bisitak ez zaizkio asko gustatzen: "Nahiago dut inor ez etortzea, kontzentratzen laguntzen didalako bakarrik egoteak".



◀ **AGERTOKIRA!**

Eta dena prest! Agertokiko argiak piztea emanaldia hastear denaren seinale da. Funtzioko beste elementu garrantzitsuetako bat da argiztapena. 'Alejop' ikuskizunerako, adibidez, argi biziak aukeratu ditu Iburgurenek. Haren arabera, kolore biziak "alaitasuna" transmititzeko hautatu ditu. Estreinakoz joan zen otsailaren 15ean taularatu zuen azpeitiarrak ikuskizun berria, eta Soreasu antzokia jendez leporaino bete zen. Iburgurenek hilabeteak eman ditu ideiak garatzen, baina ikuskizuna hilabete inguruan prestatu duela aitortu du.



◀ **EMANALDIA BUKATZEAN.**

Ikuskizuna ez da teloa ixtean amaitzen. Iburgureni publikoa ezagutzea eta pertsona horiekin egotea gustatzen zaio. Hori dela eta, emanaldia bukatzean antzoki atarira joaten da argazkiak ateratzera. Txikienak dira, batez ere, pailazoarengana gehien hurbiltzen direnak, baina helduek ere atera izan dituzte irudiak herriko artista ezagunenetarikoarekin.★

IMANOL ARREGI

pandero-jotzailea

“Denak mugiarazten zituen trikitiak Lehen”

Plazetan panderoa jotzetik erretiroa hartuta dago, baina festarako gogorik ez du galdu loiolatarrak. Panderoak mundua eman dio. 📌 Nerea Uranga 📍 Arnaitz Rubio

Pandero-jotzailea dela entzutea ez zaio gustatzen Imanol Arregi *Iturbideri*; hala ere, mundua panderoak eman diola aitortzen du. Aldakako ebakuntza egin eta Azpeitiko anbulatortoria errehabilitazio saioretara bueltaka dabil. Handik bueltan hartu du Uztarría Loiolako Iturbide baserrian. Argazkietarako kolore argiz jantzi dela azaldu du, “gazteago emateko”. Plazaz plaza eta txapelketaz txapelketa panderoa jotzen ibili zenean jasotako oroigarri eta argazki asko ez gorde izanaren pena dauka. “Zarautzeko Euskal Jai egunera 40 urtez joan nintzelako oroigarri bat ere eman zidaten”, esan du.

Plazetan panderoa jotzeari uzita dago, bazkalondoren bate-

an edo bestean besterik ez du jotzen gaur egun. Trikitizalea, dantzazalea eta festazalea da. Umoreduen pertsona. “Hitz batek beste ekartzen dit” esan, eta pasadizoa-pasadizoaren atzetik konstatzen du.

Jakin-min handiko pertsona ere bada Iturbide. Horregatik, bizitzan gauza asko bere kasa ikasitakoa da: idazten, panderoa jotzen edota dantzan.

Anbulatortoria, errehabilitaziora, bueltaka zabilta. Zer moduz?

Nire ohiturak ez dira formalak... “Zer moduz zabilta?” galdetzen didatenean, hala erantzuten diet: “Larritasunaren barruan, arin-arin hobera egiten”. Baina ondo nabill! Aldakatik bi aldiz operatu naute,

|||DATUAK|||||

|||**Jai**o. 1935eko abenduaren 29an. |||**Herria**. Azpeitia.

|||**Bizitokia**. Loiolako Iturbide baserria. |||**Lanbidea**. Lehen udaleko brigadako lorezaina; orain, erretiratua.

eta makuluekin ibiltzen naiz gaur egun.

Loiolako sanjosetarako prest?

Beno, afaria prestatzen badute, ondo! Dantzarako prest nago ni, bikotekide altu samarrarekin dantza egiteko moduan naiz; txikiarekin ez naiz ausartzen, ordea.

Loiolako Errementeri baserrian ibili zinen aurrena eskolan. Gero, Azpeitiko maristetara joan zinen ikastetara.

Gaur egun, Garate Anaiaren

etxea dagoenaren aurrealdean zegoen Errementeri baserria, eta han neska-mutil denak batera ibiltzen ginen eskolan. Gero, Azpeitira joan nintzen ikastera, maristetara. Baina urte bakarra egin nuen han: aitak min hartu zuen, eta etxean gelditu behar izan nuen. Negar egin nuen, eskola gustatu egiten zitzaidan eta. Ondoren, idazten-eta neuk ikasi nuen, inork irakatsi gabe. Kartele-tan-eta arreta jarriz ikasi dut ortografia. Gauza guztietan, lorezaintzan eta gainontzeko lanetan, tankeran ibili naiz, neure kasa ikasiz. **Aitaren lekukoa hartuta, Loiolako parkea zaintzea izan zenuen lehen lanbidea.** Bost urtez jardun nuen horretan, baina ez zuten niretzako plazarik



“Eskola utzi nuenean negar egin nuen, gustuko nuelako”

“Panderorako bokazioa behar da, agoantatzeko lan gogorra da eta”

sortzen, eta utzi egin nuen lan hura. Gero, Azpeitiko Udaleko brigadatik deitu ninduten lanerako. Hogeitaka urte egin nituen herriko lanetan. Azpeitian dauden ehunetik 90 arbola nik landatutakoak dira. Landareen makina bat kamioikada ekarri nuen Azpeitera! Orain, non zer landatu nuen jakiteko argazkiak ateratzen hasi naiz argazkilari batekin, oroitzapen gisa lagatzeko. Garmendi gainetik Loiolako tren geltokira dagoen hesi berde hori geuk jarritakoa da. Garai hartan, Joxe Mari Bastida zen alkatea, eta hari esan nion biondaren tokian landare berde eder batek hobeto emango zukeela. Frantziatik ekarri genuen landarea, han merkeagoa zelako, eta hala landatu genuen.

Panderoa, berriz, 16 urterekin hartu zenuen aurreneko aldiz. Sasoi ederra erromeriz erromeri ibiltzen hasteko, ezta?

11 urterekin hasi nintzen base-rrian lanean. Beraz, beharko 16 urterekin hasi! Aurretik ez zegoen denbora librerik.

Baina Iturbiden aurretik baziren pandero-jotzaileak.

Osabak-eta pandero-jotzaileak ziren; aita [Patxi] zen onena, hala esaten zuten. 18 urte edukiko nituen gure aitak panderoarekin ikusi ninduen. Begira jarrita, zera esan zidan: “Ez daukak zorrik nik erakutsi diatelako!”. Erantzun nion: “Zorra nik daukat zuk odola eman didazulako”. Egia hori da. Panderorako bokaziorik ez badaukazu, lan gogorra da agoantatzeko. Garai bat izan genuen

zeinatan egunero ibiltzen ginen panderoa jotzen batean zein bestean. "Umore onarekin etorri al haiz?", galdetzen ziguten askotan, baina beti grazioso eta umore onez egotea ez da erraza.

Hamar senidetan zaharrena zara zu. Anai-arrebetan pandero-jotzaile bakarra al zara?

Ez, anai gazteena [Andoni] ere hasi zen panderoa jotzen, baina berehala aspertu zen hura.

Oinordekorik ba al dator pandero-jotzaile?

Ez dut uste. Seme-alabek esan izan balidate irakasteko, irakatsiko niekeen, baina inork ez zuen ezer esan... Hori norberak eskatuta ez baldin bada, bokazioarekin ez bada eskatzen, gurasoak berak pentsatuta bakarrik ez du balio.

Urrestillako Txikurinean jo zenuen aurrenekoz panderoa. Orduetik, zeure kasa ikasi al zenuen?

16 urte genituela hasi ginen erromerietara joaten. Behin, Urrestillan geunden, Txikurineko atarian, eta Iturbidekoa nintzelako panderoa jotzen derrigor jakin behar nuela esan zidaten. Baina ordura arte eskuan sekula hartu gabe nongoen panderoa. Garai hartan, soinu-jotzaileek pandero bat edukitzen zuten beti, jotzen zekitenei uzteko. Eman zidaten pandero hura, eta jotzen hasi nintzen. Fandangoa jotzen asmatu nuen; arinarina jotzen ez, ordea. Orduan, ikasteko grina eta ilusioa sartu zitzaizkidan. Sasoi hartan, erromeriara joan eta panderoa inguratzeara erraza izaten zen. Baina arinarina ikastea kostatu egin zitzaidan. Gerora, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak liburu biografikoa egin zidanean, *Igitai jolea* izenburua ipini zion liburuari. Hori ez ipintzeko esan nien; arrazoia zeukan, ordea, idazleak [2017ko azaroan argitaratu zuten Amagoia Gurrutxaga Uranga kazetariak idatzitako liburua]. Baserriko lanetan aritzen nintzenez, igitaia hartu eta panderoa jotzen bezala

jarduten nuen. Erraztasuna neukan hatzekin toki txikian panderoaren hotsa ateratzeko.

Panderoarekin hasi eta laster, soldadutzara joan zinen, Donostiara. Gustura joan al zinen?

Bai, horixe gustura joan nintzela! Jesuitengandik ihesi joateagatik eta amarengandik alde egiteagatik, alegia, amari kezka kentzeagatik, joan nintzen gustura soldadutzara. Gure amarentzako guk balsean egitea gizona hiltzea bezalakoxea zen. Jakiten bazuen Zestoan edo Zarautzen dantzan egin genuela, pena hartzen zuen. Akordatzen naiz, Aizpurutxoko taberna batean, Antzuola aldekoan, libre izaten zela balsa dantzatzea;

“Beti umore onarekin eta grazioso egotea ez da erraza”

“Aurrenekoan fandangoa jotzen asmatu nuen, arinarina ez”

eta bestean, Azkoiti aldekoan, ez. Nik, hara joanez gero, banekien balsa egingo nuela; beraz, amari penarik ez emateagatik, Errezilera joaten nintzen, han sueltao bakarrik egiten zelako. Behin solda-

dutzara joanda, Donostiako Konstituzio plazan edo Errenterian dantzan ibilita ere, amak ez zuela jakingo eta, lasai ibiltzen nintzen balsa dantzatzen. Zera pentsatzen nuen: "Eskerrak, ez duk gure ama enteratuko!". Denek neska ederrena nahi izaten zuten dantzarako, eta nik dantza ondo egiten zuena.

Dantzazalea, orduan?

Nik adina dantza egindakoak gutxi izango dira!

Zu panderoa jotzen eta besteak dantzan. Inbidia ederak pasatuko zenituen...

Behin baino gehiagotan, panderoa utzi eta soinu-jotzaileari hanka ere egin izan nion dantzara.





Trikiti txapelketetan ibili zinen, baita txapelak lortu ere.

Pandero-jotzaile gisa, ofizial, txapelketa batean hasi nintzen. 1970. urtean Trikiti Txapelketa Nagusia antolatu zuten Donostian, eta han parte hartu nuen. Soinu-jotzaile onenaren saria Lajari eman zioten, bikote onenarena Sakabiri eta Egañazpiri, eta pandero-jotzaile onenarena niri. Orduan, panderoa entzuteak ere ikara ematen zidan. Panderoa berlarri ondoan jotzen zuten panderistek gozatu egiten zuten beren hotsa entzuten; nik, berriz, ezin nuen. Gustura eta gozatzen aritzen diren horiek dira benetako panderistak, gure osaba Miel

zena eta. Panderoak mundua eman dit, baina ni neure buruaren kontrarioa izan naiz. Begiratu zer galdetu zidan behin Laxaro Azkunek: "Hi Iturbide, zenbat aldiz atera huan txapela Lajarekin?". Arrastorik ez nuela erantzun nion. Gero, berak atera zituen kontuak, eta telefonoz deitu zidan txapela hiru aldiz lortu nuela esateko. Nik ez nuen pentsatzen nigatik ateratzen zenik txapela; ni beti dena besteek egiten zutelakoan. Hor okerra eduki dut. Hainbeste egin, hainbeste oroigarri eta opari jaso, eta haiek ez gordetzearen pena daukat. Miren izeneko neska batekin ere irabazi nuen txapelketa: Euskal Herriko soinu-jotzaile on denak han ziren, eta ez daukat or-

“nik adina dantza egindakoa gutxi izango da”

“Benetako panderistak gozatzen aritzen diren horiek dira”

duko argazki bat bakarra ere. Ezer ez dut jaso, horri guztiari garrantzirik ez eman izanaren pena daukat. Hori akats handia da. Horrenbeste urtetan hainbeste txalo jaso bai, baina uste dut neuretzako hiru aldiz bakarrik jaso ditudala. Horrelakoxea izan naiz.

Garai hartan garrantzi handia al zuten trikiti txapelketek?

Orduan trikiti txapelketak oso oso garrantzitsuak izaten ziren. Gaur egun, gazteen trikiti txapelketak egiten dira, eta egungo gazteei esaten diet garai bateko tankeran zergatik ez dituzten antolatzen orain. Trikitiko kantuak trikitiak ziren, eta ohitura zahar horiek asko maite ditut. Trikiti eskolak-eta jartzea oso ondo dago gazteek ikas dezaten. Baina dena berria egin nahi da, musika ere bai, eta hor ikusten dut koska nik. Horri lotuta, aholku bat eman nahiko nuke: ikasten ari diren trikitilariei eta dantzariei ikasten jarraitzeko, baina soinua jo eta dantzan egiteko!

“soinu handiaren aldean beste irrintzi bat du trikitiak”

“trikitilari baten mozkorra jendearen gozamina da”

Behin panderoa ikasita, ez al duzu eskusoinuari heltzeko tentaziorik eduki?

Ez, ez dut eduki, ez aukerarik, ez dirurik, ezta denborarik ere. Bestela gustura egingo nukeen, sena badut soinurako. Soinua ere oso konplikatua da entseatzeko bada; soinuarekin ere, asko jardun beharra dago.

Trikitilari bikote batean, bigarren mailako bikotekidea ez al da panderoa? Alegia, soinu-jotzaileak ez al du protagonismoa hartzen?

Soinuari asko laguntzen dio panderoak, asko. Ez dago ez gitarra, ez beste instrumenturik eskusoinuari panderoak bezala laguntzen dionik. Pandero-jotzailearen eginkizunak hiru dira: abestu, panderoa jo eta umorea sortu.

Eta umoreko pertsona zu.

Horretan salbatzen nintzen! Kantatzen txarra nintzen, baina diskoak egin nituen, hala ere.

Lehenengo diskoa Lajak derrigortuta grabatu zenuen, Laja berarekin.

Bai, 36 urterekin. Baina ez nuen egiterik nahi.

Zergatik?

Ez dudalako balio! Loiolako Herri Irratira eraman ninduen Lajak. Han kantaarazi, balio nuela esan eta diskoa grabatzera eraman ninduen gero. Beste behin, berriz, Bartzelonara joan nintzen diskoa grabatzera, Martin soinu-jotzailearekin. Kabina batean sartu ninduten, belarrietatik soinuaren hotsa entzuten nuen, eta panderoa jo behar nuen. Panderoa jotzeko garaian, jendez betetako Zarauzko plaza irudikatu nuen: jende askoren aurrean ariko banintz bezala sentitu nintzen, irrintzia ere gehiegi egiten nuen. Niri ez zitzaidan gustatu nola egin nuen, ez nuen nire gustura jo. Balekotzat eman zuten, eta ondo omen dago. Diskoa disko izaten da, eta plaza plaza. Zarautz izan da Euskal Herrian izan den herririk trikitizaleena.

Soinu-jotzaile askorekin ibili zinen zu. Ez al da hala?

Bai, baina hasieratik gehiena, zortzi-hamar bat urtean, Lajarekin. Gero, neuk esan nion Landakandarekin joan behar zuela txapelketetara, hura ni baino pandero-jotzaile hobea zelako. Ondo-

ren, Epelderekin, Martinekin... ibili nintzen. Epelderekin urte askoan jardun nuen; zenbat broma egiten genituen elkarrekin! Jendea oraindik ere asko akordatzen da guk egindako broma haiekin. An-

dregai topatu behar niola-eta baten tokian bi aurkitu nizkion Aizarnazabalen.

Gaur egun, zurekin trikitian ibilitako batzuk falta dira: Laja, esaterako.

Oraindik oraingo soinu-jolerik onena izan zen Laja. Hura hil zenean, honako hauxe idatzi nuen: "Ez zaiguk ahaztuko gulgandik alde egiteak eman zigukena pena. 60 urtez herriz herri soinua jotzen eman dizkigukan gozamenak. Hainbeste lan eder eginda utzi dituk, hautsi dituk soinu txikiaren marka denak. Gizaldi hau pasata ere, izango dituk hire aipamenak".

Trikitiko pieza artean, zer duzu gustukoena: arinarina, fandango...?

Lehenengo pieza denak dira onak. Gaur egun ere, abildade izugarria dago trikitilarien artean, baina askotan ez dituzte egiten dantzarako piezak.

Trikitia eta erromeria giroa asko aldatu direla uste al duzu?

Bai, asko aldatu dira. Aiako Aris-terrazun-eta oraindik erromeriek funtzionatzen dute, baina jendeak dantzan egiten duelako. Gu gazteak ginenean, santotomasetan Azpeitiko plazan suelta egiten genuen musika bandarekin ere, pentsatu! Gaur egun, dantzan ikasten dutenek ere ez dute dantzarik egiten plazan, ikasten asperten dira, eta utzi egiten dute. Bost orduz dantzan jardundakoa naiz ni! Azkoitiko Pikua soinu-jotzailearekin eztabaidan hasi nintzen zeinek gehiago irauten. Hura soinua jotzen eta lau lagun dantzan hasi ginen, baina bukaerarako bakarrik jarraitu nuen dantzan, soinu-jotzailea aspertuko zelakoa. Neuk bakarrik bi ordu pasan jardun nuen dantzan, baina azkeneko soinu-jotzailea baino lehen aspertu nintzen.

Sasoia ere galanta orduan. Zailduta baserrian! Orain, makinari bultzaka jarduten dute lorezaintzan edota baserriko lanetan. Denbora honetan guztian aldaketa izugarria eman da gauza guztietan.

Gauzak asko aldatuko ziren, baina gaur egun ere festa asko girotzeko trikitilariak behar izaten dira: auzoetako



GOGOAN IZAN abiātu 2.0 BERRIAK ESKAINTZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGik teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat ateratu du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiātu-gailuaren erabilizalea izan ala ez, dagoeneko abiātu.bidegi.eus-en eska dezakezu gailu berria.

← Eskatu!



jaiak, kalejirak, herri afa-riak...

Bai, bai. Musika alaia delako! Soinu handiaren aldean, beste irrintzi bat du trikitiak, beste hots bat du. Lehen trikitiak denak mugiarazten zituen.

Dantzan ere zeure kasa ikasia zara.

Bai, besteei begira ikasi nuen dantzan. 20 bat urte izango nituen orduan, eta Zestoara joan nintzen egun batean. Garai hartan, Zestoako Bainuetxera kanpotik jende asko etortzen zen. Madrildik etorritako bati dantza eskatu nion, eta segituan igarri zidan: dantzan ez nekiela esan zidan gaztelaniaz, eta nik hitz egiten ere ez nekiela. Dantzan berehala irakatsiko zidala esan eta halaxe egin zuen. Dozena erdi pieza egin nituen harekin jarraian.

Dantzarako zer duzu gustukoena, balsa ala suelta?

Biak dira ederrak. Gaur egungo dantza hau, berriz, txispatutakoan egiteko-eta ederra da, baina denbora osoan ipurdiak astintzen eta buelta ematen... Egun ez dago gozo dantzan jarduteko goserik! Ederra izaten da: lehenengo dantzan hasi, elkar ezagutzen kontu kontari gero, eta azkenerako kontuak gastatzen dira. Hori seinale ona da! Dantzan ondo egiten dutenak gozatuz joaten dira pixkanaka-pixkanaka.

Urola bailaran Triki giro elkartea sortu dute trikitiak sustatzeko. Gaur egun, dokumentazioa eta irudiak biltzeko lanean ari da. Zer iruditzen zaizu elkartea egiten ari den lana?

Oso ondo ari da elkartea, baita bertako kideak ere. Trikitiari buruzko guztia bildu beharra dago, gaur edo bihar jakiteko zer izan den. Lan asko egin dute, eta oso ondo egiten ari dira.

Esan izan duzu gustura zaudenaren plantak egiten oso ona zarela. Horrek plazaz plaza ibiltzeko balioko zizun, ezta?

Baietz pentsatzen dut, lagundu-



ko zidala. Zarauzko Euskal Jai eguna neketsua izaten zen, baina beti gustatu izan zitzaidan hara joatea. Nire iritiz, soinu edo pandero-jotzaile baten mozkorra jendearen gozamen da. Urte askoan jarduteko balio izan dit horrek niri.

Umoreko pertsona zara, baina beste alderik ba al dauka Imanolek?

Edukiko ez dut bada! Bestela ez nintzateke neu izango. Ateratzen naizenean, nire ingurutik alde, e! Molestia handia eman behar zait,

ni horrela jartzeko. Oso eskuzabala naiz, eta izango naiz bizi naizen artean, baina haserretzen naizenean... alde nire ondotik.

Idaztea gustatzen zaizu. Noiz hasi zinen horretan?

Beti gustatu zait idaztea. Bertsoak eta poesia idazten ditut. Bartzuk jasota dauzkat. Migel Mari anaia-eta Xabierko jesuiten ikastegian egon zirenean, haiek idazten ikusi eta imitatzen jarduten nuen, kopiatzen. Idazten era horretan ikasitakoa naiz ni. Iker bilobari ere idatzi nion bertsoa biok

azaltzen garen argazki bati lotuta: "Attona bilobakin dago irriparrere/zenbat gozatzen detan neurtzen ez da erre/ume ederra eta mutiko ona berez/aittite inguruan bada ez daki negarrez".

Berezkoa al duze Iturbidekoek festazale sena?

Festazale amorratuak gara Iturbidekoak, baina ni hautsiko nauen inor ez da gurean. Broma asko egindakoa naiz, eta horrek balio izan dit. Baina hurrengo egunean horretaz hitz egitea ez zait batere gustatu izan.*

Oasia ahalduntzen

Uemak udalerrri euskaldunetako gazteentzat udalekuak antolatu ditu. Izen-emate epea zabaldu dute dagoeneko. Arnasguneak ahalduntzea da xedea. 📌📍 Julene Frantzesena

Asko dira uda sasoiari udalekuetara edo oporraldia pasatzera kanpora joaten diren gaztetxoak eta nerabeak. Askotarikoa da gaur egungo aukera; izan ere, kirolari, hizkuntzari nahiz aisialdiari lotutako egonaldia egiteko aukera eskaintzen dute erakundeek nahiz enpresek. Euskal Udalekuetara joateko hautua egiten dute batzuek, Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatutakoetara joatekoa besteek, eta badira Euskal Herriko mugak zeharkatuta, oporraldia frantsesa nahiz ingelesa ikasteko baliatzen dutenak ere.

Badira euskarari estu lotuta antolatzen dituzten udalekuak ere. Hain zuzen ere, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (Uema) orain dela lau uda hasi zen hezkuntza ez arautuari lotutako eskaintza egiten. Uemak gaztetxoak udan ikastetxeetatik nahiz ikasgele-tatik ateratzeko apustua egin zuen, erakundearen hezkuntza proiektua osagarritzeko. 2017ko udan Oriora asteburu pasa antolatu zuten, eta gaztetxoek eskariz, handik urtebetara Zestoako Sastarrainen pasatu zuten astea. Jokin Uranga (Azpeitia, 1980) Uemako hezkuntza arduraduna han izan zen: "Oso ondo pasatu genuen, helburuak bete genituen, baina... mundutik isolatuta egon ginela ohartu ginen".

Horri lotuta, iaz udaleku ibiltariak prestatzea erabaki zuten Uemako kideek: Usurbilen hasi eta Arantzan bukatu zuten egonaldia.



Uemaren iazko udalekuetako irudi bat. || Uema

“Bost eguneko udalekuak izan ziren, eta aurtengorako egun bat gehiagokoak antolatu ditugu”, azaldu du Urangak. Zumaiaetik Lekeitiora egingo dute topaketa aurten, ekainaren 29tik uztailaren 5era bitartean, hain zuzen. “Bost gau igaroko ditugu: Itziarren pasatuko dugu gau bat, Ondarroan bi eta Lekeition hiru”.

Indartzeko eta elkartzeko

Udalekuak arnaguneetako bizilagun gazte txoak elkartzeko aitzakia baino ez dira. Izan ere, Uemaren helburua da gazteek egunero euskaraz egitea posible den herriak badirela ikustea. “Udalerrri euskaldunak oasi txikiak dira, eta udalekuetara etortzen diren lagunak beren herrian ez ezik beste batzuetan ere egunero euskaraz hitz egiten dela ikustea eta barneratzea nahi dugu”, azaldu du Uemako hezkuntza arduradunak.

Urangaren aburuz, euskaraz bizi diren herriak bat baino gehiago direla ikusarazteaz gain, arnaguneetako bizilagunak, batez ere



Bereziartua eta Uranga.

nerabeak, “indartzeko eta ahalduzko” balio dute Uemaren topaketek. “Euskal Herria euskaldunetako badugu, arnagune diren herriek esker izango da. Eta horretarako ere balio dute udalekuek”. Urangak jakinarazi duenez, elkartzeko, indartzeko eta ahalduzko prozesu gisa proposatzen dituzte udalekuak.

Dena den, askotan udalekuen kontzeptua gaizki ulertzen dela adierazi du hezkuntza arduradunak. “Uemako udalekuetara askotan gurasoek bultzatzen dituzte gazteak, eta gainera, horiek gune erdaldunetakoak izaten dira. Udaleku hauek, ordea, ez dira euskaraz ikasteko lekua”. Urangak zehaztu duenez, hain justu Azpeitia eta gisa bereko udalerrri euskaldunak “ahalduntzea” da filosofia. “Harremanak euskaraz egiteko egonaldia da antolatzen duguna, baina euskara gauza naturalizat hartuta. Uemaren erronka horixe da: udalerrri euskaldunetara eragitea, udalerrri horietako gazteak ahalduzko daitezten”.

Indartzeko eta elkartzeko

Unai Bereziartua (Azpeitia, 2001) iaz Uemaren udalekuetara joan ziren 50 lagunetako bat da, eta aurten esperientzia errepikatzeko irrikaz dagoela jakinarazi du. Iaz topaketara joan zen azpeitiar bakarra izan zela nabarmendu du, Euskal Herriko arnagune ugariatako lagunak eginda itzuli zela azpimarratuta. “Bakarrik joan nintzen, eta lagunak egitea pixka bat kostatu zitzaidan arren, berehala

ezagutu nuen jendea. Larrabetzuko, Etxarri-Aranatzeko, Goizuetako, Astigarragako... lagunak egin nituen. Esperientzia oso ederra izan zen”.

Bereziartuak ikasten duen ikastetxera Urangak egindako bisita izan zen azpeitiarrak egitasmoan izena emateko amua. “Hitzaldia eman zigun, aurreko edizioetako argazkiak erakutsi zizkigun, egitaraua ere ikusi genuen... Eta jende berria ezagutzeko eta abentura txiki bat bizitzeko gogoia nuen, izena eman nuen”, azaldu du Bereziartuak. “Esperientzia aberasgarria” izan zen, azpeitiarraren arabera. “Handik itzultzean ere gelditu izan gara: Bizkaiko lagunengana joan nintzen, eta Azpeitira ere etorri ziren beste batzuk geroa”. Azpeitiarrak ere argi dauka: Uemaren udalekuak ez dira euskaraz ikasteko topaketak. “Jendea ezagutzeko, lagunak egiteko, euskaraz aritzeko eta ondo pasatzeko egonaldia da Uemak antolatzen duena”.

Urangaren hitzetan, “elkarreragin handia” sortzen da bisitatzen dituzten herrien eta gaztetxoaren artean: “Zer dago herri batean? Eta zer bestean? Zeintzuk dira herri bakoitzaren berezitasunak? Zer musika talde da herri jakin horretakoa? Iaz, Oizartzen, adibidez, kontzertua eskaini ziguten anai-arreba batzuek, Beran bertso bazkaria egin genuen bi bertsolari gazterekin...”.

Hark dioenez, orain arteko erantzuna “oso ona” izan da. “Iaz asmatu egin genuen, eta aurten ere asmo berarekin prestatu dugu egonaldia, nahiz eta lekuz aldatuko garen. Aurtengoa ere ondo ateratzen bada, helburutzat hartu beharko dugu urte urte udalerrri euskaldunetatik igaroko diren udalekuak antolatzea”.

Dagoeneko zabaldu dute ekainaren bukatetik uztailaren hasierara egingo duten egonaldirako izen ematea. Hiru aukera jarri ditu Uemak izena emateko: *Uema.eus* webgunean sartuta, 943-81 66 99 telefonora deituta edo kaleratuko duten eskuorriko datuak bete eta *hezkontza@uema.eus* helbidera bidalita. 50 lagunentzako lekua izango da udalekuetan, eta izen-emate epea martxoaren 31n itxiko dute.

Astebeteko egonaldiaren ordaina 89 eurokoa izango da. “Denen eskura dagoen udalekua izatea nahi dugu”, adierazi du Urangak. “Eskertzekoa da udalekuak igaroko diren herrietako ordezkariak eskaintzen diguten laguntza: soziedadeak, eskolak, lokalak eta abar uzten dizkigute lotarako nahiz jatordue-tarako, eta horrexek ahalbidetzen du topaketa denen eskura egotea”.✳



Martxoan, Loiolan jai-jai

San Jose festak ekitaldiz beteta iritsiko dira aurten ere Loiolara. Usadioari jarraituz, asto karrera egingo dute hilaren 19an. Gainera, bestelako ekintzak ere izango dira igandera bitartean. Uztarria

Nork ez du Loiolarekin lotzen San Jose eguna eta harekin batera tarteka egokitu ohi den zubia? Aurten ere jaieguna izango da martxoaren 19a, eta ohiko moduan orduantxe hasiko dira Loiolako San Jose festak.

Aurtengo jaietarako egitarauaren azken zertzeladak lotzen ari da dagoeneko Loiolako Festa Batzordea, eta herritar denekin pentsatutako askotariko ekitaldiak antolatatu dituzte.

Hilaren 19an, osteguneguz, izango da festetako egun nagusia. Hain zuzen ere, San Jose egunetarako asto karrera, zezen txikiak eta herri kirol erakustaldia antolatu dituzte. Ekitaldi horiek goizetik arratsaldera bitartean izango dira Loiolako zabalgunean nahiz haren inguruan.

Dena den, festak ez dira egun horretan amaituko, ezta gutxiago ere. Hurrengo egunean, martxoaren 20an, mus txapelketa egingo dute. Gainera, hilaren 22 goizetako mendi bizikleta irteera ere prestatu dute.

Oraindik zehazteko

Aldizkari hau inprentara bidaltzerako horiek ziren Loiolako Festa Batzordeak prestatuta zituen festetarako ekintzak. Dena den, oraindik ere hainbat aukera eta

DATUAK

||| Zer. San Jose jaiak.

||| Eguna. Martxoaren 19tik 22ra (ostegunetik igandera).

||| Tokia. Loiola.

||| Antolatzailea. Loiolako Festa Batzordea.

ekitaldi antolatzea aztertzen ari zirela azaldu zioten batzordeko kideek Uztarriari. Horrez gain, prestatutako ekintzen orduategiak eta zehazteko zituzten.

Kontuak kontu, jai giroa izango da nagusi Loiolan hilaren 19tik 22ra bitartean. Zubia izanagatik Azepeitian gelditzen diren herritarrek badute festarako aukera.*

SAN JOSE JAIAK

4 eguneko festak. Lau egunetarako, martxoaren 19tik 22ra bitarterako, prestatu dituzte ekintzak Loiolako Festa Batzordeko kideek.*



Loiolako iazko festetako irudia. Uztarria

BESTERIK

1 Zea Maysen emanaldia

Zea Mays taldeak Atera Tour birako kontzertua eskainiko du. Habi taldea izango da aurretik agertokian.

||| Eguna. Martxoak 14 (zapateria).

||| Ordua. 22:00 ||| Tokia.

Sanagustin kulturgunea.

||| Antolatzailea. Kulturaz kooperatiba.

2 Elikadura burujabetza eta feminismoa, bat

Elikadura burujabetzaz eta feminismoaz solasaldia eskainiko dute Etxaldeko emakumeek.

||| Eguna. Martxoak 18

(asteazkena). ||| Ordua. 18:30

||| Tokia. Emakumeen Txokoa.

||| Antolatzailea. Emakumeen Txokoa.

3 Trikiti doinuak, herrira

San Jose Trikiti Jaialdia izango da ohiko moduan, San Jose egunaren bueltan.

||| Eguna. Martxoak 21

(larunbata). ||| Ordua. 17:30

||| Tokia. Soreasu antzokia.

||| Antolatzailea. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak.*

||| Azepeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

IKA argi lanak s.l. Instalakuntza Elektrikoak
Ukua: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikaergilanak@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

AIZPURU AUTOAK
Tel: 943 81 22 89 Fax: 943 81 22 81
aizpuru@aizpuru.net www.aizpuru.net
Arretxe 17, 20730 AZPEITIA

Euskal migrazioak (I)

Gaur egun pil-pilean dagoen gaia dugu migrazioena. Agian inkontzienteki, baina entzuten dugun hainbat adierazpen ikaragarriak dira. Semantikari atxikiz, ikartzeko modukoak. "Zergatik ez dira gelditzen euren herrian? Han ere jendea gelditu eta bizi duk ba...! Laster horiek izango dituk hemengo jaun eta jabe!". Iritzi guztiak omen dira errespetagarriak, baina ez denak parte-kagarriak.

Historiaren hasiera-hasieratik, gizakiak batetik bestera aldatzeko joera betetzen den fenomeno bat da, mugimendu ukaezina eta apetaz ematen ez den kontua, baizik eta bizitza baldintza hobeen bila. Azken finean, denak garela migratzaileak esan ohi da.

Uholdeka Ameriketara

XIX. mendeko lehen herenean euskal migratzailea Kubara eta Puerto Ricora doa, funtsezko arrazoi batengatik: Amerikako beste herrialdeak gerretan murgilduta daude. Baina 1830etik aurrera Rio de Plata –Argentina eta Uruguai banatzen dituen ibai erraldoia– bihurtzen da helburu nagusia. Pentsa, hiru urtetan –1837tik 1840ra– 40.000 bat euskaldun sartu ziren Montevideon. 1850etik aurrera, Argentinak eta Uruguai jarraitu zuten euskal migratzaileentzat generik garrantzitsuenak izaten, baina esan behar da Kuba, Peru, Venezuela eta Ipar Amerika ere jomuga hautatuak izan zirela.

XIX. mendeko azken laurdenean alderantziko migrazioa ezagutzen da, hau da, immigrazioa. Euskaldunek jarraitzen dute emigratzen, baina epe horretan, hogeitaz urteren barruan, Bizkaiko populazioa %47 igotzen da. Bada zerbait! Jakina da Bizkaiko industrializazioak izan zuela eragina horrelako fenomenoaren gauzatzeke.


XXI. mendeko migrazioa

Azpirarratzekoa da Latinoamerikako emakumea dela egun euskal lan merkatuan eska-



||||||| **luis gurrutxaga** |||||

||| Jakitun gara zenbat zoritxar nozitzen dituzten Mediterraneoan Europara datozen migratzaileek




era nagusia duena. Arrazoa? Zaintzarako eta etxeko lanetarako egokien moldatzen delako. Hona iristen diren latinoamerikarrek zailtasunak eta arazoak izan arren, gobernuek eskatzen dizkieten lege baldintzak betetzerakoan 'zuzenenak' dira, baita gizarteratzerakoan azkarren eta egokien moldatzen direnak ere. Datuetara joz, azken hogeitaz urtetan %2 eskas izatetik %10 izatera pasatu dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, eta ikerketa demografikoak egiten dituzten adituek diote oso onuragarria izan direla euskal demografiaren garapenean. 2000. urtean migratzaile gehienak europarrak baziren, egun latinoamerikarrak dira, arestian aipatu bezalala.

Hasieran nioen nolako iritzi espantagarriak entzuten diren migranteek. Baina asko dira, noski, gure artean aburu desberdinak dituztenak. Horietakoa da Amets Arzallus bertso-lari, kazetari eta –nik gehituko nuke– pentsalari zorrotza. Hendaiarra izanik, mugako migratzaileen zorigaitzoko joan-etorriei eta errealitateaz aski daki, eta inplikatur dago behartsuen laguntzan. Urte hasieran *Berrian* egin zioten elkarrizketan dio: "Inportantea da migratzailearen eta gure artean dagoen kristal hori puskatzea".

Jakitun gara zenbat zoritxar nozitzen dituzten Mediterraneoan Europara datozen migratzaileek, urtean hildako ehunka zenbatuz. Bada, euskal migranteen joan-etorrietako bidaietan ere badaude tragediak, adibidez, *Leopoldina Rosa* izeneko fragataren hondoratzea. Hurrengoan...*

HITZ GEZIDUNAK



	Asiako penintsula		Txori bidaiariak		Hiltzeko era		Segurako herritar		Egoista, ni
	* Deitura		Fruitu mota		Gurtza		Musika nota		
	Araudi								
	Anarkista								
Mexikarrak		Adarra					H ₂ O		
Arrain mota		* Izena					Non atzikia		
						Lasai, bare			
						Kanpo, at			
Interjekzioa				Leinuak					
Begira, so				Soro					
			Bokala		Artsenikoa		Hizki grekoa		
			Bokala		Momentu		Jardun		
Europako herrialdea								Bokal mehea	
Bakoitzari bat								Ezeztatzeko	
			Ondasunen multzo						Urania
			Bokala						
Errepikatuz gorotza			Azalera unitatea				Beldur handi		



Egilea:
Luma

* Bertso epaile azpeitiarra

SUDOKUA

	4					5	1
		7					
8	6	1	9				
2		9		4	3		
	8		7		6		5
			1	9		4	2
					9	3	8
					1		
	5	8					4



ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Il Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK|||||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin

1. Araudiak. 2. Gure herriko arte ondareetako bat duzu honakoa. 3. Zezen zikiratu. Oso-oso txikiak. 4. Marokoko hiriburua. Non deklinabide kasuaren atzikzia. Kontsonantea. 5. Irenduak, zikiratuak. Bururatu. 6. Kontsonantea. Bokal errepikatua. Beste bokal errepikatua. Eisntenioa balio du. 7. Aterkia. 8. Ibilbide luzeak adierazteko letrak. Belar landarea, bi hazi biribil dituzten lekak ematen dituena. 9. Barre. Kanpo, landa. Kontsonante bikoitza. 10. Adi ezan! Ehiztarien gustuko hegazti bidaiaria.

Goitik behera

1. Artxiboa, agiriak gordetzeko eraikina. 2. Detektagailu mota. Urteko hamargarren hilabete. 3. Ari-beko herritar. Bokalik gabeko arazoa. 4. Zubi ororen erdian. Anaiartea, kofradia. 5. Idazteko, marrazkiak egiteko edo inprimatzeko erabiltzen den isurkari koloreduna. Titanioa balio du. Kontsonantea. 6. Juntagailua. Australiako martsupiala. 7. Gerritik beherako jantzia, irekidura bakarrekoa. Gogaitu, nazkatu. 8. Irudi ortodoxo. Osmioaren ikur kimikoa. Kontsonantea. 9. Gipuzkoako udalerria, Urola Kostan. Antzoki. 10. Landare arantzatsua. Ipar Euskal Herrian, era, modua.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3				■						
4						■			■	
5							■			
6		■			■			■		
7										■
8			■							
9					■			■		
10						■				

|||HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK
BIDALTZEKO EPEA. Martxoak 23 (astelehena) |||**NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA.** Soreasuko Sormen Gunea, 1. solairua (Azpeitia) edo *lehiaketakuztarria@gmail.com* e-postara |||**IRABAZLEARI SARIA.** Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||**PARTE HARTZEKO BALDINTZA.** Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali, edo atera argazkia eta posta elektronikoz bidali.

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

U	Z	I	●	V	E	R	V	●	V	K	●
●	E	R	V	D	N	O	●	V	N	V	B
I	●	V	I	N	U	L	V	T	V	K	●
O	R	●	S	V	●	V	●	V	H	E	B
K	V	N	V	L	K	●	V	R	I	T	●
E	R	V	N	●	V	N	I	K	O	Z	I
R	U	●	V	R	R	V	B	V	●	V	●
I	G	E	T	U	V	R	V	●			
N	E	R	U	G	V	N	V	R	V	●	
●	S	●	E	●	E	●	V	●			

SUDOKUA

9	4	3	6	8	2	5	1	7
6	1	9	7	5	2	3	4	8
2	7	9	5	4	3	8	6	1
1	8	4	7	2	6	9	5	3
6	3	5	1	9	8	4	7	2
7	1	2	4	5	9	3	8	6
4	9	6	8	3	7	1	2	5
3	5	8	2	6	1	7	4	9

|||UZTARRIAREN OTSAILEKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Eneko Izagirre
 Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 124. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



**URDAIAZPIKO,
 HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
 kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA

BIDEOA



▲ EZTABAIDA, ZEZENAREN IRTEERAREN HARIRA.

Jai Karnabal arratsaldeko zezenaren irteeraren aurreko giroaren eta irteera beraren bideoa ikusgai jarri zuen Uztarriak egun horretan bertan webgunean. Jendetza ikus zitekeen irudietan; Erdikalean ehunka herritar elkartu ziren. Egun hartan bertan hasita, askotarikoak izan dira Uztarria.eus-eko erabiltzaileek albiste horretan utzi dituzten erantzunak. Kontuak kontu, sokamuturraren aldeko nahiz kontrako jarrera erakutsi dute herritarrek, eta aspaldiko garaietan Uztarriaren atari digitalean izan den eztabaidarik handiena sortu da; hori bai, anonimoen artekoa da ika-mika. Gaiak soka ekarri duela ez dago ukatzerik; are gehiago, sokamuturraren gaia azalera atera da beste behin. Gainera, karnabaletako astean Miren Gorrotxategik 'Urola Kostako Hitz'eko 'Puntuka' iritzi atalean idatzitako 'Dena libre denean' iritzi artikulua ere izan du ohiartzuna. Hark zuzenean aipatzen du Uztarria.eus-ek eskegitako bideoa eta Elegante Eguneko arratsaldean Erdikalean sortu zen giroa. Bai bideoa, bai artikulua Uztarriaren webguneko Karnabalen atal berezian ikusi eta irakur daitezke.

EFEMERIDEAK

2012

Espainiako txapeldun.

Andoni Azpillagak zakur-leren Espainiako Txapelketa irabazi zuen.

1932

Sutea, aldarean.

Parrokiko aldare nagusian sute batek kalteak sortu zituen.

1716

Sagardo txarra. Xexa ugari jaso zuen udalak, unean saltzen zen sagardo upelak 26 egunetik gora zeramatzalako salgai, eta, beraz, edari txarra zelako.

1531

Sorginak Donostiara.

Madalengan preso ziren sorginak Donostiara eramatea ordaindu zuten, haiek bidean eginiko jatorduak barne. Madalengan haiek zaintzen egon zirenei ere soldata ordaindu zieten.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

ANIMALIEN GARBIKETA TXOKOA

5 garbiketa egin
eta seigarrena doan!

HITZORDUA ESKATU | 943 15 00 85 | kimubat@kimubat.eus



KIMUBAT
— SERVICIO —

SIBO

Mikrobiotak osasunean duen garrantziaz gero eta kontzientzia handiagoa dugu. Izan ere, hesteetako igarotze prozesuan ez ezik, immunitate, endokrino, gernu... sistemekin ere badu lotura. Ohiko baldintzetan, heste meheak ez du ia bakteriorik izan behar, mantengaiak liseritzeko eta xurgatzeko gunea baita. Kolonean, berriz, mikrobiota aberats eta anitza aurkitu behar dugu.

Baina mikrobiotak aldaketak izan ditzake mikroorganismoen aniztasunean edota kopuruan, hainbat faktoreren arabera; eta, ondorioz, SIBO izeneko prozesu patologikoa hasten da. Kalkuluaren arabera, populazioaren %35ak izan dezake bakterioen gehiegizko hazkunde hori. Koloneko bakterioek beren habitat naturala utzi, heste mehera iritsi eta arazoak eragiten dizkiote kaltetuari: sabeleko distentsioa eta mina, flatulentzia, meteorismoa, hesteetako igarotzearen alterazioak, esteatorrea... Tratamendu antibiotikoak, nutrizionalak eta psikologikoak eskatzen ditu SIBOk.

Azalpen honetan erabilgarria izan daitekeen informazioa jaso nahi izan dut, baina horrek ez ditu, inolaz ere, osasungintza profesionalera egin beharreko bisitak ordezkatzeko. Izan ere, halako kasu bakoitzarekin behar bezainbesteko ebaluazio eta tratamendu pertsonalizatua egin behar da.*



aitziber aizpuru

ROSA URKIZU kioskoko langilea



1. Zer saltzen da gehien?

Egunkaria, dudarik gabe.

2. Saldu gabeko egunkariekin...

Itzuli egiten ditut. Gero zer egiten duten... Auskalo!

3. Kioskoa: egunkaria erosteko, eta...

Autobuseko txartela kargatzeko edo fotokopiak ateratzeko.

4. Bezero gazterik bai?

Oso gutxi eta oso tarteka.

5. Lanerako: goiza edo eguerdia?

Goizeko ordu txikiak.

6. Ofizioaren alderik txarrena?

Ez dago jaiegunik.

7. Eta onena?

Denbora librean.

8. Kioskoko lanak zer etorkizun du?

Aldatu egingo da.*

Maialen Etxaniz

Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larriak: 943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS
Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA
Iná Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12

Alar
merzeria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

LAU
NEUMATIKOAK
PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
943 053056 Loiola kalea 30, 20730 Azpeitia

uba
ENOTERAPIA
Abokatupeña
Florete
Gaberole
Sentabide
Gortari lanak
Fitzen administrazioa
Gestio inmoiliarria
Tel. 943 157 420 Fax. 943 157 274
Egurren kalea, 41 - 1. sotoa - 20730 Azpeitia

KIRURI
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA DISEÑU ESCOLA ELKARTEA
● **Marraskia eta eskulanak** (haurrak) 17:30 - 19:00
● **Pintura** 16:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30
● **Talla** 19:30 - 20:00
Jose Arretxe kalea, 3
943 81 28 08
aribabaina@gmail.com
Matrikula arte osoan zabalik

IRENE ALTUNA
ORAZENDA
Loiola Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunacenda.com

Aro berrira moldatzen

2020a hasi eta berehala iritsi zaio jubilatzeke tenorea Maria Jesus Bernarasi. Ohitzeko betarik ez du izan oraindik. ✉ Mailo Oiarzabal



Ez dut deskonexio erabatekoa egiteko denborarik eduki. Oporretan egongo banintz bezala da". Otsaileko azken astean elkartu da Maria Jesus Bernaras (Urretxu, 1956) Uztarriarekin, erretiroa hartu zuenetik hilabete eta erdi ere pasatu ez denean. Urtarrilaren 15ean bukatu zuen familia mediku lanean osatu duen lau hamarkadako ibilbidea. 40 urtez izan da *kabezerako* mediku, eta ia guztiak, 37, Azpeitian.

"Sentsazioa da gauzak egiteko daukazula, lana uzteko garai hori ez dela oraindik iritsi.

Arrazionalki bai, buruak esaten dizu bukatu dela eta etapa berri batean zaudela. Baina irrazionalki... Batzuetan, 'ai ama, lanera ez naizela joan!', etortzen zait burura; edo ametsak, pazienteak daukadala kontsultan eta ezin ditudala artatu, eta herio batean esnatu. Pentsatzen dut normala dela. Poliki-poliki", sakondu du, bizitzako etapa berria hasi berri-tan daraman prozesua azaltzean.

Erretiroarekin "bizitzan albo batean utzi ditugun gauza horiek denak berreskuratzeko" aukera ireki zaiola jakinda ere, ez du ezkuta-

tzen bere "alderdi bat penarekin jubilatuz" dela. Anbulatorioko lankideak ez ezik, "lana bera" faltan sumatzen du: "Beti esaten nuen, kontsulta erdi bat egiteko aukera eman baldin, larrialdiak kenduz gero, gustura egingo nukeela lana nik. Gainera, pena ematen dit, iruditzen baizait esperientzia asko pilatu dugula, erakusteko asko daukagula, eta aipatutako neurri horretan lanean jarraitzea transmisio lana egiteko modu bat izango litzateke".

Anbulatorio zaharra martxan zela iritsi zen Azpeitira Bernaras, 1983an. Hiru urte ondo-

ren ireki zituen atea Jose Artetxe kaleko anulatorio berriak, eta osasun zentro horretan orain arte urte gehien lan egin duen sendagilea da urretxuarra. Azpeitiar askok beste familiako medikurik ez dute ezagutu gaur arte.

Ibilbide luze horren errepassoa egiten hasita, "Azpeitia lanerako herri oso ona" azpimarratu du: "Jendeak konfiantza handia eman dit nire lana egiteko. Baloratuta sentitu naiz, benetan esaten dut. Baldintza sozialak ere nahiko onak dira, eta hori oso inportantea da. Lankideekin izan ditudan harremanez harago eta Osakidetzak eman dizkigun tresnez eta baldintzez harago, nire pazienteekin izan dudana harremana zoragarria izan da, gorabeherak gorabehera".

Urretxu eta Valladolid

"Niri amak edo aitak euskaraz hitz egiten zidaten eta nik erdaraz erantzuten nuen. Hori gogorra da esatea, e, baina horrela zen. Kalean hori behar zen". XX. mendearren erdialdeko Urretxu-Zumarragako errealtate soziolinguistikoaz eta umetako bere egunerokoaz ari da Bernaras. 2-3 urterekin hasi zen joaten eskolara, Zumarragako Gurutzearen Alaben ikastetxera. "Guk euskaraz hitz egiten genuen, gure aita horretan oso zorrotza zen. Baina mojek ez ziguten uzten euskaraz hitz egiten. Hainbeste sartu ziguten erdaraz egin beharra... Azpeitian agian ez da hori bizi izan, baina Urretxu eta Zumarraga immigrazio handia jaso duten herriak izan dira. Han, 'kultoa' zen erdaraz hitz egitea, erdaraz hitz egin behar zen. 10 urterekin mojetatik institutura joan nintzen Batxilergoa ikastera, eta han ere dena zen erdaraz, noski". Institutuko urteetan, 13-14 urterekin eta lagun kuadrillak eraginda, hasi zen euskara nolabait berreskuratzen. "Orduan hasi nintzen kontzientzia hartzen, herri ginela, euskaldunak ginela. Orduan hasi ginen geure buruari galdetzen zergatik egin behar genuen dena erdaraz".

17 urterekin utzi zuen sorterrria, Valladoliden (Espainia) Medikuntza ikasteko. Unibertsitate publikoetan, hangoa izaten zen normalean gipuzkoarrentzat lehen aukera. "Zigorluta geunden euskaldunak orduan ere. Izan ere, Bilbon bazegoen Medikuntza fakultatea, baina giputxioi ez ziguten uzten hara joaten", kontatu du Bernarasek. Unibertsitate garaiko oroitzapenez eta bizipenez hitz egiten hasi denean, ordea, ezin esan etxetik urrun ibili izanaren damurik duenik. "Bizitzan zehar gauza on asko eduki ditut, baina unibertsitateko garai hori... oso indartsua izan zen", dio. Franco hil baino "urte bat edo bi le-



1. Tunisiara egindakoa da, Laponiakoarekin batera, orain arte egin dituen bidaien zerrendan toki berezienean gordetzen duena.
2. Schonbrunn jauregiko lorategietan, Vienan.
3. Neptunoren iturriaren aurrean, Florentzian (Italia).

henago" iritsi zen Valladolidera, eta kultur, gizarte zein politika mugimenduak bor-borka bizi zituen unibertsitate giroarekin egin zuen topo han. "Guztira 10.000 bat ikasle baginen, 1.500-2.000 euskaldunak ginen", ekarri du gogora. "Han bai begiak ireki munduari! Kultur taldeak, antzerki taldeak, talde politikoak... denetarik zegoen, baita euskal taldeak ere. Santa Ageda ospatzen genuen; euskaldunok kantuan irteten ginen, izara handiekin, eta dirua jasotzen genuen, e?"

Bidaiak, kirola, historia...

"Ez dago beste munduko ezer" Bernarasek zaletasunetan, hala dio berak. Umetatik gaur arte mantendu duen zaletasunik ba ote duen galdetuta, "bizikleta" erantzun du: "Gaztetxoan nintzela aitari lapurtzen nion bizikleta, berak jakin gabe; barraduna zen eta oso gaizki moldatzen naiz ni barradun bizikletekin, baina bizikletan ibiltzea asko gustatzen zitzaidan".

Erretiroa hartu ondoren egitea gustatuko litzazkiokkeen gauzen artean, berriz, bereziki bi aipatu ditu: historia eta bidaiak. "Amak kontatzen zuen txikitatik esaten nuela mediku izan nahi nuela, baina historia ere asko gustatu izan zait. Nabaraldek *on line* eskaintzen duen ikastaro bat egiten naiz, adibidez". Araututako historiak eta arlo horretako unibertsitate ikasketek ez dute bereziki erakartzen; "baina ditudan interesen arabera auke-ratuta, gustatuko litzaidake mundu horretan sakontzea". Bidaiatzea da betitiki gustatzen zaion bestea, orain arte egin duena eta aurrerantzean "egiten jarraitzeko asmoa" duena. Egiptora joatekoa da laster, eta bereziki gustatukoak izan zituen Tunisian eta Laponian gozatu zuena errepikatzea ez luke gaizki hartuko.

Ibiltzea, mendia eta eskiatzea, familia eta lagunartea. Denbora zertan inbertitu badu Bernarasek, eta orain, baita dituen asmoak betetzeko denbora ere.✘

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (MARTXOA)

1-6-11-18-25
Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

4-9-14-15-20-24-28-29
Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

2-7-8-13-16-23-30
Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

5-12-17-26
Arrieta (Azpeitia).
943 81 12 74

3-10-19-21-22-27-31
Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

GAUEZ, URTE OSOAN
Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 25ean izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



IKASGELA BERRIAK.

Sindikatu Zaharreko lehen solairuan ikasgela egokitu du udalak. 16 urtetik gorakoek erabili ahal izango dute ikasgela, astelehenetik igandera, 08:00etatik 22:00etara.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegia osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

VALERIA BRITO

Sao Luis, Brasil

“Atsegin ditut inguruko paisaiak, parkeak eta kaleko Lasaitasuna”

Duela bost urte iritsi zen Azpeitira Valeria Brito. Bertan berreraiki du bizitza, eta gogotsu heldu die erronkei 📌 **Maialen Etxaniz**

Noiz eta nolatan etorri zinen Azpeitira?

2015eko udan iritsi nintzen Azpeitira, kontu personalak eta neure buruari jarritako erronkak nahiz konpromisoak tarteko .

Asko kostatu al zitzaizun hona ego-kitzea?

Bai, hasierako uneak oso gogorak izan ziren. Dena zen berria: hizkuntza, bizi-ohiturak, administrazioa... Zorionez, denbora gutxiarik pertsona oso onak ezagutzeko aukera izan nuen, eta haiek ikaragarri lagundu zidaten.

Itxiak izatearen fama dute euskaldunek...

Ez dut ulertzen zergatik esaten den hori. Badago itxia den jendea, baina leku guztietan bezala. Nik ezagutu ditudanak alaiak, sinpatikoak eta atseginak dira, eta, batez ere, esku-zabalak; beti daude laguntzeko eta daukate-na emateko prest. Beraz, ezin dut esan lehorrak direnik.

Zer moduz moldatzen zara euskaraz?

Euskararen inguruan hitzegiten dudana baikoitzean sentipen ugari nahasten zaizkit ba-

rreanean. Azpeitira iritsi nintzenean ez nekien euskarak existitzen zuenik. Orain, Euskaltegian nabil, lagunekin mintzapraktikak egiten ditut, alabarekin haurrentzako euskarazko liburuak irakurtzen ditut eta herriko jardueretan euskaraz parte hartzera animatzen naiz.

Zer atsegin duzu Azpeititik?

Oso herri polita iruditzen zait, eta asko atsegin ditut inguruko paisaiak, parkeak eta kaleko lasaitasuna. Izugarri estimatzen dut kaltetik beldurrik gabe ibili ahal izatea. Hori bai, eguraldia aldrebes samarra da....

Nolakoa da zure egunerokoa hemen?

Erizain laguntzailea izateko titulua lortzeko ikasten ibili naiz orain arte, eta dagoeneko lortu dut. Euskaltegira joaten naiz, alabari eskolaz kanpoko ekintzetara laguntzen diot, eta denbora librean lagunekin egotea atsegin dut. Hemen aurkitu dudana gauzarik ederrera dira. .

Zer erronka dituzu etorkizunerako?

Bizitza egonkorragoa eta lana lortzea, alabari merezi duen heziketa ematea, euskaraz ondo hitz egitea... Nahi dudana da bizitza duina eta lasaia alabarentzat eta biontzat.*



1

1. Erizain laguntzaile titulua lortzeko eskoletan.
2. Alabarekin saninazioetan . 3. Liburutegian.

6.585 kilometrora dago Sao Luis.



2



3

Habanako postalak

Zoriontsu bizi nintzen. Iraul-tzaileen artean, neska-mutikoak libertitu egiten ginen. Bagenekien eskasia zegoela, arropa gutxi genuen, baina ez ginen erabat pobre bizi. Jateko gutxi genuen, baina ez amerikarren bahimenduagatik, herrialdean bertan gauzarik txikiak ekoizteko gai ez ginelako baizik. Dena 'nazionalizatu' zuten, dirua ematen zuten industria guztiak, enpresak, negozioak... nazionalizatu. Krisi garai latza izan zen. Baina pobrezia eta miseria guztiak gorabehera, haurrak hazi egin ohi dira, eta gu ere hazi egin ginen, hezkuntza sistemako ideologia marxista-leninista eta kastrista hartan.

Halako batean, 1980an, Kubako sistema diktatoriala eta basatia zela jabetu nintzen. Urte hartan, kubatar asko Peruko enbaxadara sartu ziren. Beste askok, berriz, Arieleko portutik ihes egin zuten. Nik, berriz, nire auzoak, ezagunak, lagunak, kideak... alde egiten ari zirenei ttu egiten ikusi nituen; gobernuak berotuta, jakina. 'Zaborra' omen ziren, izen horixe eman zien gobernuak. Orduantxe jausi nintzen. Arbuioa zen. Jendea ikusi nuen, etxean ezkutatuta, atarian jendea zain zutela, patata ustelak botaka. Desengainu galanta hartu nuen. Aurretik ere banekien sistemak ez zuela funtzionatzen, baina neure begiez ikusi nuenean, entzundakoak, ikasitakoak, irakurritakoak etorri zitzaizkidan gogora, eta diktaduran ginela ohartu nintzen.

Kubako gauza bera

Alemana ikasi nuen Habanako hizkuntz eskola batean. Gero, itzultzaile jardun nuen Kuban bertan, baina ez luzaro, inteligentzia zerbitzuarentzako lan egitera eramanduten Berlinera, Ekialdeko partera. Kubako ofizialek ez zekiten alemanez, eta itzultzaile jardun nuen nik han, batzuen eta besteen artean. Agiriari itzultzea ere egokitu zitzaidan, baina ez nintzen espioi.

Ekialdeko Alemanian nengoela, inguruko hainbat herrialdetan izan nintzen: Hungaria,



|||||||miel a. elustondo|||||||

||| Erabat desengainatu nintzen Moskun, 1986an, ekonomiaren egoera ikusi nuenean

Txekiar Errepublika, Bulgaria, Sobietar Bata-suna, Polonia... Eta han ere Kubako gauza bera ikusi nuen, jendeak ez zuela sistemari sinesten, sistema totalitarioa zela, erreforma batzuk gorabehera. Inork ez zuen sistema hura nahi. Esate baterako, erabat desengainatu nintzen Moskun, 1986an, ekonomiaren egoera ikusi nuenean, zeharo suntsituta baitzegoen! Suziriak, hegazkinak eta armadarik indartsuena zituzten, baina elikagaiak, kontsumoa, administrazioa... pekoz gora zeuzkaten. 'Komunismoaren hiriburua Mosku, eta hauxe da egoera iraultzatik 70 urtera. Hau ote da, bada, gure geroa?'

Esaterako, Moskun bertan hasi nintzen ihes egiten pentsatzen. 1985ean, Kubako musikari bat heldu zen Ekialdeko Alemaniara. Laster adierazi zidan ez zuela Kubara itzuli nahi. Nirekin hitz egiteko beldurrez zegoen. Artean ez zekien biok luma berekoak ginen edo ez. Ni Kubako inteligentzia zerbitzuarentzako ari nintzen lanean, baina kontrainteligentzia zerbitzua ere han zen, ehunka ofizialekin! Jakin zuten musikari hark ihes egin nahi zuela, eta, jakina, ez zioten utzi nahi izan. Musikari haren pertsonarik hurrekoena, berriz, neu nintzen, eta beste agente bat izendatu beharrean, neuri agindu zidaten egitekoa. Ihesbiderik ez neukala jabetu nintzen. Ordu-rako, banituen zenbait kontaktu AEBetako enbaxadarekin, eta haraxe deitu nuen telefonoz, baina deia harrapatu zuten, eta ni atxilotzeko operatiboa abiarazi zuten".

(Jorge Luis Garcia Vazquez).*



Jorge Luis Garcia Vazquez

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com

SENIDE BAT,
LAGUN BAT,
HERRITAR BAT
AZPEITITIK KANPO
BIZI DUZULA?



OPARITU
UZTARRIA
hnt

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

943-15 03 58 (LUZAPENA 6) deitu edota uztarria@uztarria.eus-era idatzi